

**OINARRIZKO
CURRICULUM DISEINUA**

ERIZAITZAREN LAGUNTZEKO

TEKNIKARIA

AURKIBIDEA

1. Tituluaren identifikazioa.....	4
1.1. Izena.....	4
1.2. Maila.....	4
1.3. Heziketa-zikloaren iraupena.....	4
2. Erreferentea (lanbide-perfila).....	4
2.1. Gaitasun orokorra.....	4
2.1.1. Lanbide-gaitasunak.....	4
2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia.....	4
2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak.....	5
2.3. Produkzio-prozesuko kokapena.....	6
3. Irakaskuntzak.....	6
3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.....	6
3.2. Lanbide-moduluak.....	7
1.Lanbide-modula: Administrazioa-eragiketak eta Osasungintzako dokumentazioa.....	7
2.Lanbide-modula: Erizaintzako oinarrizko teknikak.....	10
3.Lanbide-modula: Ospitaleko higiena eta materialen garbiketa.....	16
4.Lanbide-modula: Osasunaren sustapena eta pazientearentzako Laguntza psikologikoa.....	19
5.Lanbide-modula: Laguntza odontologiko-estomatologikoko Teknikak.....	21
6.Lanbide-modula: Lan-taldeko herremanak.....	25
7.Lanbide-modula: Lan-prestakuntza eta-orientabidea.....	27
8.Lanbide-modula: Kalitatea eta etengabeko hoberkuntza.....	30
9.Lanbide-modula: lantokiko prestakuntza.....	32
3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziarioa eta denboralizazioa.....	35
3.3.1. Iraupenak.....	35
3.3.2. Sekuentziarioa.....	36
4. Irakasleak.....	36
4.1. “Erizaintzaren laguntza” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakasleen espezialitateak.....	36
4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko.....	36
5. Irakaskuntzak emateko gutxieneko baldintzak.....	36
5.1. Espazioak.....	36
6. Konbalidazioak eta korrespondentziak.....	36

6.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak.....	37
6.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak.....	38

1. Tituluaren identifikazioa

- 1.1. Izena: "Erizaintzaren laguntza".
- 1.2. Maila: Erdi-mailako Berariazko Lanbide Heziketa.
- 1.3. Iraupena: 1.400 ordu.

2. Erreferentea (lanbide-perfila)

2.1. Gaitasun orokorra

Hona hemen produkzio-sistemaren lanbide-prestakuntzarako eskakizun orokorrak teknikari honentzat:

- Pazienteari/bezeroari laguntzea eta bere inguruneko osasun-baldintzen arloan lan egitea, honako kasuetan: laguntza espezializatuko eta lehen mailako laguntzako zentroetan erizaintza-taldeko kide gisa, erizaintzako diplomatuaren menpe egongo delarik, edota, kasua bada, libreki dihardutenengandik eratorritako osasun-zerbitzuetan osasun-taldeko kide gisa, dagokionaren ardurapean.

2.1.1. Lanbide-gaitasunak

- Bere lanbidearekin lotutako osasun-zainketen prozesu desberdinei dagokien informazioa eta lengoiaia interpretatzea eta ulertzea.
- Kontsultategi baten administrazio-zereginak eta antolamendukoak egitea, produktu eta material suntsigarri nahiz ez suntsigarrietan dituzten beharrak ebaluatuz eta berauek administratuz, bere zereginen eskumenaren barnean.
- Pazienteen/bezeroen, egingo diren zainketen edota kontsultategi, unitate eta/edo zerbitzuetan erabiltzen diren tresna eta materialen osasun-baldintzen ikuspegi orokorra eta koordinatua izatea.
- Bere neurrian, pazienteari/bezeroari laguntzeko zerbitzuak hauengana hurbiltzea, laguntza psikologikorako teknikak eta osasun-hezkuntzakoak erabiliz.
- Aho- eta hartz-higieneko ekipo eta kabineteetan laguntzeko eta tresnak eskura jartzeko zereginak betetzea.
- Bere eskumenaren esparruan, erizaintzako era hidroterapiako oinarrizko teknikak aplikatzea, dagozkien ekipo eta instalazioak erabiliz, erregulatuz eta sekuentziatuz, ezarri diren prozedurei jarraituz eta zaintza eta terapia egiterakoan izan daitezkeen gertakari eta irregulartasunak idatziz eta berorien berri emanez.
- Biztanleriarengan prebentziorako eta osasun eta higienarako ezagutzak, jarrerak eta ohiturak sustatzea.
- Partaide den lan-taldeko kideekin lan egitea, berari dagozkion erantzukizunak onartuz, erabaki diren helburuak betez eta elkarri informazioa emateko bideak jarritz.
- Bere neurrian, pertsonak eta osasunaren/gaixotasunaren irizpideak nahiz prebentzioari, laguntzari eta errehabilitazioari buruzkoak erlazionatzea eta baloratzea.
- Larrialdietan lan egitea, larrialdien seinaleak azkar baina soseguz igorritz eta erabakita dauden segurtasun-neurriak aplikatuz.
- Antolamenduzko alderdiak eta alderdi funtzional, sozial eta administratiboak kontuan hartuta, osasun-sistemaren ikuspegi orokorra eta osoa izatea.
- Lan-arlo horretan gertatu diren berrikuntza teknologiko eta antolamenduzkoen ondorioz sortu diren lan-egoera berrien arabera bere burua moldatzea.

2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia

Teknikari honi, goragoko maila duten teknikariek esleitutako funtzioen eta helburuen esparruan eta dagozkion lanerako arloetan, oro har, ondoko autonomia-gaitasunak eskatuko zaizkio:

- Kontsultategi, unitate edo zerbitzu batean laguntzeko beharrezkoa den osasungintzako materialaren mantentzea, zainketa eta garbiketa.

- Txukuntasunaren, garbiketaren eta pazienteak eta honen inguruak dituen higie- eta osasun-baldintzen mantentzea.
- Pazienteekin hitzordua jartzea eta hauen datuen erregistroa.
- Erizaintzaren laguntzako zainketen aplikazioa.
- Lehen mailako laguntzako tekniken aplikazioa.
- Botiken administrazioa aho eta ondestetik nahiz bide topikoa erabiliz.
- Botika-prestakinen elaborazioan (unidosien prestaketa, parenteralen prestaketa...) parte hartzea, erizaintzako diplomatuaren ikuskapenarekin.
- Bere ardurapean dagoen ekipo eta materialaren erabilera, neurketa, mantentzea eta kontrola.

2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak

Ondokoak dira profesionalak burutu eta/edo azaldu behar dituen burutzapen eta portaera esanguratsuenak:

1. Kontsultategiko/unitateko materialak prestatzea eta informazioa prozesatzea, eskumena duen eremuan.

- Pazienteekin/bezeroekin hitzorduak jartzea, berauei harrera egitea eta datuak erregistratzea, kontsultategi bakoitzeko arauak betez.
- Kontsultategiko jarduerak burutzeko beharrezkoa den materiala badugula ziurtatzea.
- Beharrezko izanez gero, beste unitateekin modu koordinatuan lan egiteko ahozko nahiz idatzizko informazioa ematea edota jasotzea, horretarako erakundearen arauak betez.
- Zerbitzu mediko edo odontologiko batean aurrekontuak edota fakturak egitea, kontsultategi bakoitzaren eta jarduera bakoitzaren arau eta tarifen arabera.

2. Pazienteari/bezeroari erizaintzaren laguntzako zerbitzuak aplikatzea.

- Premien arabera eta ezarritako zainketa-plana kontuan hartuta, pazientea/bezeroa garbitzea eta higie-lanak egitea.
- Paziente/bezeroa lekualdatzeko prestatzea eta lekualdaketa horretan baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzea.
- Paziente/bezeroa bere inguru horretan mugitzea, bere egoera eta jarrera anatomikoa kontuan hartuta.
- Pazienteari bere joan-etorrietan laguntzea eta zainketa-planeko arduradunak eginiko oharrak betetzen direla ziurtatzea.
- Pazientearen/bezeroaren azterketa eta behaketa zuzena egiteko, egin beharreko jarduerak egitea.
- Termoterapia, krioterapia eta hidrologia medikoko tratamendu lokalak aplikatzea, erakundearen ezarritako protokoloei jarraituz.
- Aho eta ondestetik nahiz bide topikoa erabiliz hartzen diren sendagaiak prestatzea eta administratzea.
- Hil ondoko zainketak egitea ezarritako protokoloei jarraiki.
- Janariak banatzea eta janariak irensteko zailtasunak dituzten pazientei/bezeroei laguntzea.
- Istripuetan eta lehen mailako laguntzetan parte hartzea eta/edo hauek prebenitzeko teknikak aplikatzea, ezarritako protokoloak eta jarraibideak betez.

3. Pazientearen/bezeroaren ingurunearen eta kontsultategietan/unitateetan/zerbitzuetan erabiltzen diren material eta tresnen osasun-baldintzak zaintzea.

- Kontsultategietako/unitateetako eta zerbitzuetako material eta tresnen garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa egitea.
- Bai asistentzia-zentroetan eta bai etxean, gaixoaren gela txukun eta osasun- eta higie-baldintzak kontuan hartuta izatea.
- Infekzio nosokomialen kontrolean parte hartzea.

4. Bezeroari/pazienteari laguntza psikikoa ematerakoan parte hartzea, aldi berean eta bere neurrian, laguntza psikologikorako teknikak eta osasun-hezkuntza aplikatuz.

- Pazienteen baitan oinarrizko behar psikologikoak eta jokabide anomaloak sumatzea, beren eskumenen esparruan.
- Pazienteari/bezeroari laguntza psikologikoa ematea bizi-baldintzak hobetzeko, bere eskumenen esparruan.
- Pazientearengan/bezeroarengan autozainketarako jarrerak eta ohiturak sustatzea eta berau elkarre eta laguntza-taldeetan parte har dezan bultzatzea.
- Pazientearen/bezeroaren, senitartekoen eta kolektiboen elikaduraren, norberaren nahiz ingurunearen higienaren eta bizimodu osasungarriaren esparruan ohitura osasungarriak izan ditzaten prestakuntza ematerakoan eta hori guztia sustatzerakoan, bere neurrian esku hartzea.

5. Aho- eta hortz-higieneko ekipoetan tresneria eskura izateko lanak egitea.

- Protokolo teknikoari eta kalitate-arauei jarraiki, hortz-erradiografiak erbelatu eta artxibatzea.
- Sendagileak eskatutako materialak prestatzeko, irabiatze-, espatulatze- eta nahaste-lanak egitea.
- Hortz-besaulkia bere osagarri eta elementu guztiekin erabiltzeko prest izatea.
- Hortz-besaulkiko interbentzioan beharko diren tresnak prest jarri dira, "lau eta/edo sei eskuko teknika" erabiliz.
- Ebakuntza-prozesuaren aurretik eta honek iraun duen bitartean, lan-esparrua isolatu eta xurgatzea.
- Pazientea/bezeroa fisikoki eta psikologikoki prestatzea honekin lanean hasi aurretik, ari garen bitartean eta ondoren, tratamendua ondo jarraitzeko, honen premiak kontuan hartuta.

2.3. Produkzio-prozesuko kokapena

- Lanbide- eta lan-ingurunea

Teknikari honek bere lana batez ere osasungintzaren sektorean, pazientearen/bezeroaren laguntzarako zerbitzuetan egin ahal izango du, lehen mailako laguntzan, komunitatearentzako laguntzan eta/edo laguntza espezializatuan dauden erizaintzako taldeetan parte hartuz.

Bere jarduera ondoko azpisektoreetan garatu ahal izango du nagusiki:

- Lehen mailako laguntza edota laguntza komunitarioa: etxez etxeko laguntza, osasunaren sustapena, aho eta hortzen osasuna, kontsultategiak egoitza geriatrikoak eta bestelako asistentzia-zentroak.
- Laguntza espezializatua: kontsultategiak, ospitaleak, larrialdiak, erditzeko gelak, pediatria, unitate bereziak (arreta intentsiboko unitatea, zainketa bereziak, ebaketa-ondorengo zainketak, zainketa unitatea eta ebakuntza-gelako zainketak). Ebakuntza-gelak, esterilizazioak, buru-osasuna eta geriatria.
- Bestelakoak: osasun-asistentziako eta osasun-arretako zentroak, pribatuak edo instituzio desberdinen mendeak.

- Ingurune funtzionala eta teknologikoa

Erizaintzaren Laguntzako Teknikaria, unitatearen/kontsultategiren antolamenduak/kudeaketak, zerbitzuaren prestazioak eta osasun-hezkuntzak dituzten funtzio eta azpifuntzioen esparruan kokatu behar da.

Teknika eta ezagutza teknologikoen honako arloak biltzen dituzte:

- Baliabideen administrazioa eta antolamendua eskumena duen heinean.
- Pazienteari/bezeroari laguntza eta zainketak emateko teknikak.
- Pazientea/bezeroa hartzen duen inguruaren higiena eta zainketa.
- Materiala garbitu eta esterilizatzeko tresneria.
- Zientzia psiko-sozial aplikatuak.
- Aho eta hortzen osasunerako teknikak.

- Lanbideak, ereduzko lanposturik garrantzitsuenak

Ondoren, adibide gisa eta batez ere lan-orientabiderako, erakunde publiko nahiz pribatuetan, behin tituluan definitzen duen lanbide-gaitasuna lortzen duenean, langile honek bete ditzakeen lanbideak eta lanpostuak zerrendatu dira.

- Erizaintzako/erietzeko laguntzailea.
- Bainuetxeetako laguntzailea.
- Lehen mailako arretaguneko eta etxez etxeko erizaintza-zainketetako laguntzailea.
- Aho eta hortzen higieneko laguntzailea.
- Laguntzaile geriatrikoa.
- Laguntzaile pediatrikoa.
- Esterilizazioko laguntzailea.
- Unitate berezietako laguntzailea.
- Buru-osasuneko laguntzailea.

3. Irakaskuntzak

3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.

- I. Pazienteei/bezeroei osasun-zainketak ematea, erizaintzako oinarrizko teknikak aplikatuz eta inguruko asistentzia-zentroen ohiko erabilera-protokoloei jarraituz.
- II. Interbentzio odonto-estomatologikoetan tresneria prestatzea eta teknikoki laguntzea.
- III. Organismoaren bizi-konstanteen erregistroak lortzea eta euskarri dokumental egokietan grafiko bidez adieraztea.
- IV. Kontsultategietan edo osasun-zerbitzuetan laguntza egokia emateko beharrezkoa den materiala, tresnak eta ekipoak ezagutu eta hautatzea.
- V. Ospitaleko infekzioetatik babestu eta prebentzioa egiteko eta pazienteen higiena eta erosotasuna zaintzeko teknikak hautatzea eta, egoki denean, aplikatzea.
- VI. Osasun-programen garapenean aktiboki parte hartzea eta osasungintzaren esparruko ordezkari eta mezu osasungarrien igorle dela kontuan hartuta lan egitea.
- VII. Egoera berezietan pazienteek/bezeroek gogo-aldetik izaten dituzten gorabeherak ulertzea eta azaltzea, asistentzia gizabidezko bihurtzen laguntzeko.
- VIII. Lehen mailako laguntza eta osasun-zainketak aplikatzea larrialdi-egoeretan.
- IX. Ospitalearen eta etxearen higienerako teknikak lantzea osasunaren alderditik.
- X. Bere esku dauden baliabide materialen garbitasunerako eta esterilizatorako teknika egokiak aplikatzea.
- XI. Aho-barrunbearen erradiografia egiterakoan laguntzea eta erradiografiak errebelatzea.
- XII. Osasun-sistema publikoaren egitura deskribatzea eta ulertzea eta eskaintzen dituzten laguntza-mailak eta motak bereiztea.
- XIII. Administrazio-kudeaketako eta merkataritza-dokumentuen elaborazioko teknikak aplikatzea osasun-zerbitzu pribatuetan.
- XIV. Osasungintzaren sektoreko mintzairan mezu teknikoak ulertzea eta, beharrezko denean, mezu horiek transmititzea.
- XV. Bere lanbide-jarduera arautu eta baldintzatzen duten lege-, ekonomia- eta antolamendu-esparruak ulertzea.
- XVI. Esparru edo sektore honetan garatuko diren prozesuei irtenbideak emateko lanetan laguntzea eta parte hartzea, ingurumenaren baitan izan ditzakeen eraginak murrizteko eta, halaber, bere lanbidearen bidez, prozesuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan parte hartzea.

3.2. Lanbide-moduluak

1. lanbide-modulua. ADMINISTRAZIO-ERAGIKETAK ETA OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Dokumentu klinikoaren mota desberdinak beren erabilpenekin erlazionatzea eta, zerbitzu edo osasun-zentroaren arabera, izapideak egiteko bideak eta hauen erabilera deskribatzea.
2. Pazienteaz/bezeroaz arduratzen den unitate, kontsultategi edo zerbitzu bateko funtzionamendu zuzena ahalbidetzen duten baliabide materialen bilketarako, banaketarako eta kontrolerako teknikak hautatzea eta, kasua bada, aplikatzea.
3. Osasun-zerbitzuko ekintza bakoitza bere tarifarekin lotuz eta funtzionamendurako zehaztutako arauak kontuan hartuta, osasun-zerbitzuetako interbentzio eta jarduketan aurrekontu eta faktura zehaztuak egitea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Dokumentu klinikoaren mota desberdinak beren erabilpenekin erlazionatzean eta, zerbitzu edo osasun-zentroaren arabera, izapideak egiteko bideak eta hauen erabilera deskribatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Hitzorduak jartzeko dokumentuak interpretatzea, zerbitzu- edo instituzio-motaren arabera burutzapenerako prozedura egokiak adieraziz.
- Erakundeak eta zerbitzuak identifikazio pertsonalerako erabiltzen dituen itemak zerrendatzea, beharrezkoak baitira pazienteekin/bezeroekin hitzordua jarri ahal izateko edota hauei proba osagarriak egiteko.
- Egoera zehaztutako moldatutako dokumentu-eredu desberdinak osatu eta betetzea, datuen zehaztasuna eta txukuntasuna baloratuz.
- Osasungintzako dokumentuen erregistrarako erabiltzen diren dokumentuen eta kodeen egitura deskribatzea, osasun-zentroetan dokumentazioa mugitzeko dauden mekanismoak zehaztuz.
- Historia klinikoko eredu baten esanahia eta egitura azaltzea, dokumentuak eta proba diagnostikoak gordetzeko egitura eta sekuentzia logikoak deskribatuz.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoera praktikoetan, dokumentu klinikoak eskatu, gorde eta igortzea, kasu bakoitzean dauden arau bereziak errespetatuz.
- Osasun-zentroen eskemak egitea, bai organikoki eta baita hierarkikoki ere, hauek barnean eta orokorrean edo inguruan dituzten erlazioak eta sailak deskribatuz.
- Barne-arauen eskuliburuak aztertzea, honen lanbide-jardueraren garapenari dagozkionak identifikatuz eta deskribatuz.

2. Pazienteaz/bezeroaz arduratzen den unitate, kontsultategi edo zerbitzu bateko funtzionamendu zuzena ahalbidetzen duten baliabide materialen bilketarako, banaketarako eta kontrolerako teknikak hautatzean eta, kasua bada, aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Izakinen kontrolerako dokumentuak azaltzea, biltegiaren funtzionamenduari dagokionean, mota bakoitza bere funtzioari esleituz.
- Izakinen kontrolerako metodoak eta hauen aplikazioak azaltzea, hala, materialen inbentarioa egiteko bidea izan dezaten.
- Biltegiaren kontrolerako eta kudeaketarako programa informatikoen aplikazioak deskribatzea eta erabiltzea.
- Osasungintzako produktuak biltegitzeko teknikak deskribatzea, hauek segurtasun-neurriekin erlazionatzea eta hondatu edo galdu direlako nahiz bestelako egoeraren batengatik izan ditzaketen ohizkanpoko egoerak adieraztea.
- Osasungintzako biltegien kudeaketari buruz, behar bezala deskribatutako suposizio praktikoetan:
 - Deskribatu den suposizioaren arabera, izakinen arloan biltegia berriro osatzeko beharrak identifikatzea.
 - Eskaera-aginduak ematea, material-mota eta hornikuntzaz arduratuko den pertsona edo unitatea adieraziz.

- Beharrezkoak diren datuak sartzea, hala, datu-basean izakinen kontrola zehatza izan dadin.
- Materialaren kontserbaziorako aginduak zehaztea, beren ezaugarriak eta biltegitzeko beharrak kontuan hartuta.
- Prozesuan produktuak jasan zitzakeen aldaketak sumatzea, ondorioz produktua kenduz eta horren berri dagokionari emanaz.

3. Osasun-zerbitzuko ekintza bakoitza bere tarifarekin lotuz eta funtzionamendurako zehaztutako arauak kontuan hartuta, osasun-zerbitzuetako interbentzio eta jarduketan aurrekontu eta faktura zehaztuak egitean, ikasleek ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Osasun-zentroetan erabili ohi diren kontabilitaterako dokumentuen definiziorako merkataritza-irizpideak eta elementuak azaltzea.
- Programa informatiko espezializatuen funtzionamendua eta oinarri-oinarrizko prestazioak deskribatzea, aurrekontuak eta fakturak egiterakoan beroriek erabiliz eta aplikatuz.
- Horrelako merkataritza-dokumentuek bete behar izaten dituzten arau fiskalak zerrendatzea.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoera praktikoetan:
 - Dokumentuan sartu beharko diren sailak zein diren zehaztea.
 - Amaierako zenbatekoa zehaztu eta banakapen zuzena egin behar denean, kalkuluak egitea, indarrean dauden arau fiskalak betez.
 - Definitu den suposizioaren arabera, dokumentu, aurrekontu edo fakturak zuzen egitea.

c) Edukiak

I. Multzoa: ADMINISTRAZIO-ERAGIKETAK

Prozedurazkoak:

- Osasungintzako dokumentazioaren elaborazioa eta erabilera:
 - Hitzorduetarako dokumentuen eta fitxen elaborazioa.
 - Proba osagarriak izapidetzea.
 - Dokumentuen gordetzeak, artxibatzeak eta erregistroak.
 - Beste sail batzuetara dokumentazioa igortzea.
 - Lanerako protokoloen interpretazioa.
- Merkataritzako dokumentuen elaborazioa eta erabilera:
 - Aurrekontuen elaborazioa.
 - Fakturak egitea.
 - Prezioen zehaztapena.
 - Aurrekontuak eta fakturak egiteko aplikazio informatikoen erabilera.
 - Arau fiskalen aplikazioa.
 - Fakturak eta aurrekontuak bideratzea.
 - Salerosketetako eragiketei buruzko dokumentuak bideratzea.
- Lanerako tokien analisia:
 - Sektoreko langileen lan-baldintzei buruzko ikerketa.
 - Sektore publikoko eta pribatuko okupazio-mailari buruzko datuen bilketa.
 - Lanpostu desberdinetara iristeko ezaugarrien zehaztapena.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Osasungintzako dokumentazioa: erabilerak eta aplikazioak. Sailkapena.
 - Hitzorduetarako dokumentazioa.
 - Azterketarako probak eta proba osagarriak.
 - Historia klinikoa.
 - Identifikazio pertsonalerako itemak.
 - Lanerako protokoloak. Barne-arauen eskuliburuak.
- Osasun-erakundeak:
 - Antolamendua. Mailak. Sailak.
 - Erakundearen barne- eta kanpo-harremanak.
 - Osasun publikoa eta osasun komunitarioa.

- Erizaintza: bilakaera historikoa. Erizaintzaren laguntzarako prozedurak eta metodoak.
- Kontabilitate-dokumentuak:
 - Fakturak eta aurrekontuak.
 - Arau fiskalak.
 - Informatika oinarrikoa. Pakete informatiko aplikatuak.

Jarrerazkoak:

- Zerbitzuan edo erakundearen erabakitako arauak errespetatu eta betetzea.
- Garatutako lanean txukuntasuna eta zehaztasuna.
- Arau fiskalen balorazioa.

II multzoa: **BILTEGIAREN KUDEAKETARAKO PROZESUAK**

Prozedurazkoak:

- Biltegiaren kudeaketa:
 - Behar diren gauzen identifikazioa eta eskaeren burutzapena.
 - Biltegiaren inbentarioaren elaborazioa eta kontrola.
 - Materialen eta produktuen kontserbazioa.
 - Materialen eta produktuen banaketa eta biltegitratzea.
 - Pakete informatikoen erabilera, biltegiaren kontrolerako eta kudeaketarako.
 - Dokumentu eta fitxen elaborazioa eta izapidetzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Biltegitratzeko sistemak. Metodoak. Dokumentazioa.
- Segurtasun-neurriak eta osasungintzako produktu eta materialen kontserbaziorako baldintzak.
- Biltegiaren kontrolerako eta kudeaketarako egokitutako programa informatikoak.

Jarrerazkoak:

- Segurtasun- eta higie-neurrien errespetua.
- Garatu den lanaren txukuntasuna eta zehaztasuna.
- Material eta produktuak galdu edo hondatu direnean edo antzeko kasuetan ekimena erakustea.

2. lanbide-modulua. ERIZAINZAKO OINARRIZKO TEKNIKAK

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Erakunde batean ezarritako higie- eta harreman-arauak zorrotasunez errespetatzea eta teknikak lantzerakoan hauek guztiak kontuan hartzea.
2. Pazientearen/bezeroaren egoeraren arabera, honen higie pertsonalerako behar dituen baliabide teknikoak aztertzea, betiere erakundearen erabakitako protokoloak betez.
3. Pazientearen/bezeroaren egoeraren eta premien arabera, hau lekuz aldatzeko, mugitzeko edota harat-honat ibiltzeko protokoloak egokitzea eta, kasua bada, beroriek erabiltzea.
4. Pazientearen/bezeroaren egoeraren edo baldintzen arabera behaketa eta/edo azterketa medikoa errazagoa izan dadin baliabide teknikoak aztertzea eta erakunde horretan ezarritako protokoloak aplikatzea.
5. Sendagaiak administratzeko bideen eta onartutako tekniken arabera zein material erabiliko den identifikatuz tratamendurako aginduak interpretatzea eta ezarritako protokoloak aplikatuz horiek betetzea.
6. Dieten administrazioari buruzko jarraibideak aztertzea, dependentzia-mailaren arabera, janariak irensten laguntzeko teknika desberdinak proposatzea eta, egoki izanez gero, aplikatzea.
7. Larrialdietako osasun-laguntzako teknikak aztertu eta aplikatzea eta egoeraren eta aplikagarritasun-mailaren arabera egokiena zein den zehaztea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Erakunde batean ezarritako higie- eta harreman-arauak zorrotasunez errespetatzean eta teknikak lantzean hauek guztiak kontuan hartzen dituenen, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Teknika lantzerakoan izan diren gorabeherak euskarri dokumental egokian idaztea.
- Protokoloetan ezarri diren higie- eta osasun-arauak zorrotasunez betetzea eta teknikak lantzerakoan lan-jantziak egokitasunez erabiltzea.
- Teknikak lantzerakoan, pazienteari/bezeroari igorri beharreko mezuak eta honekin tratuak izaterakoan izango diren jarraibide nagusiak identifikatzea.
- Pazientearen/bezeroaren egoeraren edo baldintzen arabera, teknikak lantzerakoan honen intimitatearen baitan eragina izan dezaketen faktoreak deskribatzea.
- Suposizio praktikoa simulatuetan, delako pazienteari/bezeroari tratu egokia ematea, teknikak lantzerakoan informazio egokia eskainiz eta bere intimitatea gordetzen lagunduko dioten neurriak onartuz, eta bere jokabidea lanbidearen arau deontologikoen arabera egokitzea.
- Teknikak erabiltzerakoan, lan-taldeko beste kide batzuekin modu koordinatuan lan egitea, parte hartuz eta protokoloak errespetatuz.

2. Erakundean erabakitako protokoloak betez eta pazientearen/bezeroaren egoeraren arabera, honen higie pertsonalerako behar dituen baliabide teknikoak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pazientearen/bezeroaren higie pertsonalerako teknikan erabili ohi diren produktuak, materialak eta tresnak identifikatzea.
- Pazienteari/bezeroari eman beharreko higie-zainketak zehaztea, honen egoeraren arabera erabiliko diren tekniken hautaketarako irizpideak azalduz.
- Pazienteak/bezeroak dependentzia-maila txikiko edo erdiko taldeetan sailkatzea ahalbidetzen duten irizpideak azaltzea.
- Pazientearen/bezeroaren higie eta garbiketarako prozedurak deskribatzea eta, honen egoeraren arabera, horretarako behar dituen materialak zehaztea.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, garbiketa osorako (dutzak eta ohea) eta garbiketa partzialerako (ilea, ahoa eta hortzak, eta genitalak garbitzea eta oinak zaintzea) teknikak garatzea, pazientearen/bezeroaren egoeraren/premiaren arabera erabiliko diren materialak hautatuz.
- Pazientearen/bezeroaren irazkinak biltzeko prozedurak deskribatzea, honen egoeraren edo premien arabera, horretarako behar dituen materialak zehaztuz.
- Larruazalaren eta larruazal-eranskinen eta gernu-aparatuaren oinarrizko ezaugarri anatomofisiopatologikoak azaltzea, batez ere pazientearen/bezeroaren higie eta garbiketarekin zerikusia dutenak.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, falka edo botila bidez irazkinak biltzea.
- Gorpu bat beilatokira eramateko prestatzeko jardueren sekuentzia adieraztea.
- Gorpuak janzteko prozedurak deskribatzea, horretarako erabili beharko dituen materialak eta produktuak zehaztuz, eta deskribatutako suposizioetan horiek aplikatzea.
- Euskarri egokien bidez, tekniken erabileran izan diren gorabeherak idaztea.

3. Pazientearen/bezeroaren egoeraren eta premien arabera, hau lekuz aldatzeko, mugitzeko edota harat-honat ibiltzeko protokoloak egokitzean eta, kasua bada, beroriek erabiltzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pazienteak/bezeroak posizio egokian jartzeko teknika ohikoenen ezaugarriak eta aplikazioak deskribatzea.
- Behar bezala deskribatutako egoeretan, pazienteak/bezeroak posizio egokian jartzeko teknikak erabiltzea.
- Oheratuta dauden pazientearen/bezeroaren egoerak adierazten dituzten suposizioetan eta hauek presioagatiko ultzerak dituzten nahiz ez dituzten kasuetan, ezarrera-aldaketak eta protokoloak deskribatzea, erabiliko den materiala hautatuz eta pazienteei/bezeroei horren berri emanez.

- Pazientearen/bezeroaren egoeraren eta baldintzen arabera, hau lekuz aldatzeko teknika egokiak azaltzea, hauen egokitzapenerako irizpideak emanez.
- Behar bezala deskribatutako egoeretan, ustezko pazienteak/bezeroak ohetik ohatilara (errestatzeko izararen bidez eta laguntzaile gehiagorekin), ohetik aulkira eta ohetik gurpil-aulkira eta alderantziz aldatzea.
- Paziente baten egoeraren eta baldintzen arabera, berau mugitzeko eta lekualdatzeko teknika egokienak azaltzea, berau egokitzeko irizpideak emanez.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, ustezko pazienteekin/bezeroekin maniobrak egitea (altxatzeko, harat-honat ibiltzeko edota ohe ertzera nahiz oheburura hurbiltzeko), horretarako beharko duen materiala hautatuz.
- Oheratutako pertsonen larruazalean aldaketa-zeinuak antzeman ahal irizpideak deskribatzea.
- Presioagatiko ultzerak sor ditzaketen mekanismoak eta gorputzeko zein tokitan agertzen diren gehien azaltzea.
- Presioagatiko ultzerak saihesteko prebentzio-neurri nagusiak azaltzea eta hauen tratamendurako nahiz prebentziorako osasungintzako produktu nagusiak identifikatzea.
- Sistema muskuloesketikoaren oinarriko ezaugarri anatomofisiopatologikoak azaltzea, batez ere pazienteak/bezeroak lekualdatu eta mugitzearekin zerikusia dutenak.

4. Pazientearen/bezeroaren egoeraren edo baldintzen arabera behaketa eta/edo azterketa medikoa errazagoa izan dadin baliabide teknikoak aztertzean eta erakunde horretan ezarrita dauden protokoloak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pazientearen/bezeroaren behaketarako eta/edo azterketarako jarrera anatomiko ohikoenen ezaugarriak eta jarraibideak azaltzea.
- Egokia den jarrera anatomikoan azterketa medikoa egin ahal izateko beharrezko diren baliabide materialak zerrendatzea.
- Azterketa medikoetako teknika desberdinetan erabiltzen diren materialak prestatzea.
- Sistema kardiozirkulatorioaren oinarriko ezaugarri anatomofisiopatologikoak azaltzea, batez ere bizi-konstanteak neurtzearekin zerikusia dutenak.
- Bizi-konstante bakoitza hartzeko jardueretan gehien erabiltzen diren leku anatomikoak zehaztea eta beharrezkoa duen materiala hautatu eta zuzen erabiltzea.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, tenperaturaren, odolaren presioaren, bihotz-maiztasunaren eta arnas maiztasunaren balioak lortzea, horretarako behar dituen baliabideak erabiliz eta erregistro-grafikoa eginez.
- Balantze hidrikoa egiteko beharrezkoak diren neurketak egitea eta beroriek idaztea, dagokion erregistro-grafikoa eginez.

5. Sendagaiak administratzeko bideen eta onartutako tekniken arabera zein material erabiliko den identifikatuz tratamendurako aginduak interpretatzean eta ezarrirako protokoloak aplikatuz horiek betetzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Giza organismoaren baitan hotz eta beroan oinarritutako ekintza terapeutikoak deskribatzea.
- Teknika hidrotermalen aplikazio terapeutikoak azaltzea, ur mineral eta sendagarrien ezaugarriak eta hauek izan ditzaketen aplikazioak erlazionatuz.
- Botiken administrazioko bide ohikoenen oinarriko ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea.
- Ahotik, ondestetik bide topikotik botikak administratzeko erabiltzen diren materialen ezaugarriak azaltzea.
- Oxigenoterapiako eta aerosolterapiako oinarriko teknikak azaltzea eta behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan aplikatzea.
- Medikamentuen administrazioari lotuta dauden arrisku nagusiak deskribatzea, botika-mota eta berau hartzeko bidea kontuan hartuta, hauek guztiak behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan identifikatuz.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, tratamendu-agindua interpretatzea, medikazioa prestatzea, administratu beharreko dosia kalkulatzeko eta hura ahotik, ondestetik eta bide topikotik administratzea.
- Enemak administratzeko prozedurak deskribatzea eta behar bezala deskribatutako suposizioetan prozedura horiek burutzea.

- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan enemak ematea.
- Suposizioetan oinarritutako datuekin eta bere mailan, medikazio-orriak betetzea.
- Sistema kardiozirkulatorioaren ezaugarri anatomofisiopatologikoak azaltzea, batez ere bizi-konstanteak neurtzearekin zerikusia dutenak.

6. Dieten administrazioari buruzko jarraibideak aztertzean, dependentzia-mailaren arabera, janariak irensten laguntzeko teknika desberdinak proposatzean eta, egoki izanez gero, aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Janariak hauen elikadurarako balioaren arabera sailkatzea.
- Digestio-sistemaren oinarritzko ezaugarri anatomofisiopatologikoak azaltzea, batez ere pazientearen/bezeroaren elikadurarekin zerikusia dutenak.
- Dieta-mota desberdinen elikadura-ezaugarriak deskribatzea: dieta normal eta terapeutikoa (biguna, idorgarria, likidoa, hipokalarikoa eta hiperkalorikoa, salbuespenezkoa eta abar).
- Elikadura ahotiko, enteral eta parenteralaren ezaugarriak azaltzea.
- Elikadura ahotiko, enteral eta parenteralerako beharko diren materialak eta higiene- eta osasun-neurriak deskribatzea, behar bezala azaldutako suposizio-egoeretan hauek identifikatuz.
- Ustezko pazienteei/bezeroei janariak ematea, dieta-motaren eta haien dependentzia-mailaren arabera teknika egokituz.
- Zunda “nasogastrikoaren” bidez ustezko pazienteak elikatzea.
- Ustezko pazienteen/bezeroen ezaugarrietara egokitutako dieta-txantiloak egitea, hauen banaketa edota laguntza beharrezkoa ote den idatziz.

7. Larrialdietako osasun-laguntzako teknikak aztertu eta aplikatzean eta egoeraren eta aplikagarritasun-mailaren arabera egokiena zein den zehaztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Inmobilizaziorako ekintza nagusiak deskribatzea (goiko gorputz-adarrak, beheko gorputz-adarrak, bizkarrezurra eta zati politraumatizatua).
- Traumatismoek eragiten dituzten zeinu eta sintoma ohikoenak azaltzea, kasuak kasu immobilizatzeke egin beharko diren mugimenduak zehaztuz.
- Heskailuak jartzeko eta ferulizazioetarako beharrezkoa den materiala deskribatu era aukeratzea.
- Toki desberdinetan izan daitezkeen hausturetan (bizkarrezurra, goiko gorputz-adarra eta beheko gorputz-adarra) hesgailuak jartzea eta immobilizaziorako maniobrak egitea, behar bezala deskribatutako kasuetan.
- Bihotz-biriketako bizkortzeko (BBB) tekniken aplikazioetako eduki eta sekuentziak azaltzea.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan BBBko oinarritzko zereginak egitea.
- Hedaduraren eta sakoneraren arabera erredura-mota desberdinak azaltzea, kasu bakoitzean larrialdietan osasun-laguntzarako neurririk egokienak deskribatuz.
- Zauri eta odoljario-mota desberdinak azaltzea, mota eta egoeraren arabera berehala egin beharrekoak deskribatuz.
- Larrialdi batean tornikete bat egiteko premia adieraz diezaguketen aldagaiak zehaztea.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, zaurien sendaketa eta odoljarioen inhibiziorako maniobrak egitea.
- Deskarga elektrikoak, hozkadak, ziztadak, izozteak, gorputz bitxien irensteak... jasan dituzten pertsonen zeinu eta sintomak azaltzea, larrialdien kasuetan zer egingo den jakiteko prozedurak zehaztuz.
- Behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan, larrialdietarako botikinaren gutxieneko edukia eta bertako elementuen aplikazioak deskribatzea.
- Toxikapen-mota desberdinak bere sintoma adierazgarrienen arabera desberdintzea, sarbideak eta hauek deuseztatzeko metodoak zerrendatuz.
- Istripua jasan duenari gertatu zaiona eta itxuraz medikuak eska dezakeen informazioa azaltzea, behar bezala deskribatutako kasuetan berau “identifikatuz”.

c) Edukiak

I. multzoa: PAZIENTEAREN/BEZEROAREN HIGIENA, MOBILIZAZIOA ETA ELIKADURA

Prozedurazkoak:

- Pazientearen/bezeroaren intimitatea zaintzeko neurrien onespina.
- Higiene- eta garbiketa-tekniken prestaketa eta burutzapena.
- Iraizkinak biltzeko tekniken onespina eta burutzapena.
- Posizioaren eta jarrera-aldaketen prestaketa eta burutzapena.
- Mobilizazioen eta lekualdaketen prestaketa eta burutzapena.
- Joan-etorrien prestaketa eta burutzapena.
- Presioagatiko ultzeren prebentziorako tekniken aplikazioa.
- Hil-ondoko zainketen prestaketa eta burutzapena.
- Elikagaien administrazioarako prestaketa eta burutzapena.
 - Dieta-txantiloak betetzea.
 - Janarien banaketa eta administrazioa.
 - Zunda nasogastrikoaren bidezko elikadura.
- Dokumentuen erregistroa eta osaketa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Pazientearekiko/bezeroarekiko harremana: oinarrizko jarraibideak. Intimitatearen baitan eragina izan dezaketen faktoreak.
- Larruazalaren eta larruazaleko eranskinen oinarrizko printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- Pazientearen/bezeroaren higiena eta garbiketa. Teknikak eta aplikazioak.
- Gernu-aparatuaren oinarrizko ezaugarri anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- Iraizkinak. Motak, ezaugarriak eta hauek biltzeko prozedurak.
- Gorputza sostengatu eta mugitzeko oinarrizko printzipio anatomofisiologikoak. Patologia ohikoena.
- Lekuz aldatzeko, mugitzeko eta joan-etorrietarako teknikak eta oharrak.
- Presioagatiko ultzerak. Sorrera. Sintomak. Kokapena. Prebentzioa.
- Hil-ondoko zainketa. Teknikak. Beilatokira eramatea.
- Liseri-aparatuaren eta honi dagozkion guruinen anatomia eta fisiologia.
- Elikadura eta nutrizioa. Elikagaien oinarrizko ezaugarriak. Printzipio nagusiak.
- Dietak. Dieta-motak.
- Elikadura ahotikoa, enterala eta parenterala. Administrazioarako teknikak.

Jarrerazkoak:

- Arreta teknikak praktikan jartzean izan daitezkeen gorabeheren aurrean.
- Higiene- eta segurtasun-neurrien errespetua eta hauen garrantziaren oharpena.
- Protokoloen eta jarduketarako ezarritako jarraibideetan zorrotasuna.
- Lanerako ezarritako arroparen erabileraren eta honen baldintza egokien balorazioa.
- Pazienteekin dituen harremanetan zuzentasuna.
- Informazioaren zorrotasuna, sekretu profesionala errespetatuz.
- Pazientearen intimitatearen errespetua.
- Lan-taldeko kideekin modu koordinatuan lan egiteko interesa, komunikaziorako arauak eta bideak kontuan hartuta.
- Txukuntasuna eta zorrotasuna lanean.
- Lanbidearen jardunarekin lotutako informazioa lortzeko interesa.

II. multzoa: BEHAKETA, AZTERKETA ETA MEDIKAMENTUEN ADMINISTRAZIOA

Prozedurazkoak:

- Pazientearen/bezeroaren intimitatea gordetzeko neurrien aplikazioa.
- Behaketarako eta azterketarako prestaketa:

- Behaketa eta azterketarako tresna eta materialen prestaketa.
- Jarrera anatomikoen burutzapena.
- Bizi-konstanteen neurketa eta erregistroa eta balantze hidrikoa.
- Medikamentuen administrazioarako prestaketa eta beronen burutzapena:
 - Arriskuen identifikazioa.
 - Aginduen arabera dosien kalkulua.
 - Ahoz edo ondestetik nahiz bide topikoa erabiliz sendagaiak administratzea.
- Enemen administrazioa.
- Aerosolterapiako eta oxigenoterapiako tekniken burutzapena.
- Hotz eta beroen teknika terapeutikoen prestaketa eta aplikazioa.
- Erregistrorako dokumentuen eta gorabeheren idazketa.

Gertakariak, kontzeptuak eta jarrerak:

- Pazientearen behaketarako eta azterketarako tresneria eta materialak.
- Aparatu kardiobaskularraren eta arnas aparatuen oinarriko ezaugarri anatomofisiologikoak. Patologia ohikoenak.
- Bizi-konstanteen ezaugarriak eta balio normalak eta patologikoak.
- Balantze hidrikoa. Erregistroa.
- Farmakologia orokorra: oinarriko printzipioak. Medikamentuen sailkapena hauen ondorioen eta hartzen duten eremuaren arabera.
- Ahoz, ondestetik eta bide topikotik eginko administrazioen oinarriko anatomofisiologia.
- Ahoz, ondestetik nahiz bide topikotik medikamentuak administratzeko teknikak. Medikamentuen aurkezpena. Arriskuak.
- Aerosolterapia eta oxigenoterapia. Funtsak eta teknika ohikoena.
- Hotz-beroa. Ondorio terapeutikoak. Aplikazio-teknika nagusien ezaugarriak eta oharrak.
- Ur mineral eta sendagarrien ezaugarriak eta oharrak.

Jarrerazkoak:

- Arreta handia teknikak praktikan jartzekoan izan daitezkeen gorabeheren aurrean.
- Higiene- eta segurtasun-neurrien errespetua eta hauen garrantziaren oharpena.
- Protokoloen eta jarduketarako ezarritako jarraibideetan zorrotasuna.
- Lanerako ezarritako arroparen erabileraren eta honen baldintza egokien balorazioa.
- Pazienteekin/bezeroekin dituen harremanetan zuzentasuna.
- Informazioaren zorrotasuna, sekretu profesionala errespetatuz.
- Pazientearen/bezeroaren intimitatearen errespetua.
- Lan-taldeko kideekin modu koordinatuan lan egiteko interesa, komunikaziorako arauak eta bideak kontuan hartuta.
- Txukuntasuna eta zorrotasuna lanean.
- Lanbidearen jardunarekin lotutako informazioa lortzeko interesa.

III. multzoa: LEHEN MAILAKO LAGUNTZA

Prozedurazkoak:

- Lehen mailako laguntzaren aplikazioa
 - Esku-hartzearen identifikazioa dituen zeinu eta sintomen arabera.
 - Heskailuak jartzeko eta immobilizatzeko prestaketa eta burutzapena.
 - Zaurien sendaketarako, odoljarioen inhibiziorako maniobretarako eta torniketeak egiteko tekniken prestaketa eta burutzapena.
 - Istripua izan duenaren itxurari buruzko informazioa.
- Larrialdietarako botikinaren mantentzea
 - Larrialdietako botikinerako materiala, produktuak eta tresnak zerrendatzea, bai orokorrak direnak eta baita bereziak ere.
 - Larrialdietako botikinaren osagaien kontrola eta osaketa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lehen mailako laguntzari aplikatutako oinarriko printzipio anatomofisiologikoak.
- Immobilizaziorako nahiz ebakuaziorako maniobra nagusiak.

- Traumatismoen zeinu eta sintoma nagusiak.
- Hesgailuak jartzeko eta immobilizatzeko teknikak.
- Bihotz-biriketako bizkortzea.
- Erredura-motak hedaduraren eta sakoneraren arabera. Jardunbideak.
- Zauri- eta odoljarrio-motak. Torniketeak. Jardunbideak.
- Deskarga elektrikoaren, hozkaden, ziztaden, izozketen, gorputz bitxien irensteen eta abarren zeinuak eta sintomak. Tratamendua.
- Toxikapenen sarbideak eta hauen deuseztatzea. Tratamendua.
- Larritasunaren eta lehentasunaren irizpideak.
- Larrialdietarako botikina. Osaketa eta mantentzea.

Jarrerazkoak:

- Arreta handia teknikak praktikan jartzerakoan izan daitezkeen gorabeheren aurrean.
- Higiene- eta segurtasun-neurrien errespetua eta hauen garrantziaren oharpena.
- Protokoloen eta jarduketarako ezarritako jarraibideetan zorrotasuna.
- Informazioaren zorrotasuna.
- Lan-taldeko kideekin modu koordinatuan lan egiteko interesa, komunikaziorako arauak eta bideak kontuan hartuta.
- Txukuntasuna eta zorrotasuna lanean.

3. lanbide-modulua. OSPITALEKO HIGIENEA ETA MATERIALEN GARBIKETA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Pazienteen/bezeroen osasun-zerbitzuetan erabiltzen diren material eta tresnekin erabili beharreko garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-teknikak aztertu eta aplikatzea.
2. Pazientearen unitateak bete beharreko higiene- eta osasun-baldintzak aztertzea eta berorien lorpenerako metodoak eta teknikak deskribatu eta aplikatzea.
3. Ospitaleko infekzioen kontrol eta prebentzioen kasu zehatzetan duten erabilera zehaztuz, isolamendu-prozedurak aztertzea.
4. Bildu behar den laginaren edo desegin behar den hondakinaren arabera egokiak diren bideak eta teknikak hartuta, laginak bildu eta hondakinak desegiteko prozesuak azaltzea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Pazienteen/bezeroen osasun-zerbitzuetan erabiltzen diren material eta tresnekin erabili beharreko garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-teknikak aztertu eta aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Desinfekzio-prozesua azaltzea, erabilitako materialen ezaugarrien arabera onartuko diren metodoak deskribatuz.
- Erabilera klinikoko materialen garbiketarako eragiketen sekuentzia deskribatzea.
- Materiala eta tresneria honen jatorriaren arabera septikoa den ala ez esan eta horretan oinarrituz sailkatzeko bidea emango duten irizpideak zerrendatu eta aplikatzea.
- Esterilizazio-prozesua azaltzea, tresnen ezaugarrien eta osagarrien arabera erabiliko diren metodoak deskribatuz.
- Esterilizazio-prozeduren kalitate-kontrolerako metodo desberdinak azaltzea, kasu bakoitzean egokiena zein den adieraziz.
- Gaixo kutsakorrei dagokienean, pertsonen, objektuen eta laginek bete beharreko segurtasun- eta higiene-neurriak azaltzea.
- Ospitaleko higienerari buruz, behar bezala deskribatutako suposizio-egoera praktikoetan:
 - Kasuaren ezaugarrien arabera higiene egokia bideratzeko teknika erabakitzea.
 - Teknika kontuan hartuta garbiketarako baliabideak eta produktuak aukeratzea.
 - Garbiketa, desinfekzio eta esterilizazio-teknikak zuzentasunez aplikatzea.

- Egin den esterilizazioaren kalitatea egiaztatzea.
- Aurretiaz jarduketarako protokoloak prestatzea.
- Erregistro egokiak betetzea.

2. Pazientearen unitateak bete beharreko higie- eta osasun-baldintzak aztertzean eta berorien lorpenerako metodoak eta teknikak deskribatu eta aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kontsultategietan eta/edo pazienteen unitateetan izaten diren baliabide materialak edo osagarriak deskribatzea, bakoitzak betetzen dituen funtzioak zein diren adieraziz.
- Asistentziaren esparruan gehien erabiltzen diren ohe-motak eta osagarriak azaltzea.
- Koltxoi eta ohe-jantzi mota desberdinak deskribatzea, hauek tolestu eta ondoren prest izateko erabiltzen diren teknikak azalduz.
- Ohe-garbiketarako prozedurak eta egoera berezietan osagarrien ordezkapenerako irizpideak deskribatzea.
- Pazientea bere unitatean hartu eta kokatzerakoan eragiketen sekuentzia eta pazienteari/bezeroari eman beharreko informazioa azaltzea.
- Pazientearen/bezeroaren egoeraren arabera ohe-mota desberdinak egiteko teknikak azaltzea
- “Paziente kutsakorren unitatea” deskribatzea, batez ere segurtasun- eta higie- arauak azpimarratuz.
- Pazientearen unitate bateko zainketei buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoera praktikoetan:
 - Ohe-mota desberdinak egiteko beharko diren ohe-jantziak prestatzea.
 - Pazientearen unitatea garbitu eta txukuntzea.
 - Ohea prestatu eta irekitzeko teknikak burutzea, horretarako dauden modu desberdinak kontuan hartuta.
 - Protokoloaren arabera paziente/bezeroa hartu eta gelaratzea.

3. Ospitaleko infekzioen kontrol eta prebentzioen kasu zehatzetan duten erabilera zehaztuz isolamendu-prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gaixotasun transmitigarrien oinarriko ezaugarri fisiopatologikoak deskribatzea eta prebentziorako neurri orokorrak zerrendatzea.
- Isolamendu-metodoak azaltzea, gaixotasun transmitigarriak dituzten pazienteengan dituzten aplikazioak azalduz.
- Isolamendu-teknikei dagokienean beteko diren printzipio eta arauak deskribatzea, unitatearen/zerbitzuaren funtzioaren eta pazientearen edo bezeroaren egoeraren arabera.
- Isolamendu-tekniken burutzapenean erabili ohi diren baliabide materialak deskribatzea.
- Isolamenduari buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Egoerari egokitutako prozedura zehaztea.
 - Beharrezkoak diren baliabide materialak aukeratzea.
 - Esku-garbiketa higienikoa eta kirurgikoa egiteko teknikak burutzea.
 - Txanoa, txabusina, galtzak, eskularruak, eta abar janzteko teknikak burutzea.
 - Protokoloei edo barne-arauen eskuliburuei jarraitzea, lanpostuari dagozkionean.
 - Infekzioen prebentziorako lan-taldean ezarritako arauak errespetatzea.

4. Bildu behar den laginaren edo desegin behar den hondakinaren arabera egokiak diren bideak eta teknikak hartuta, laginak bildu eta hondakinak desegiteko prozesuak azaltzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Bildu beharreko lagin biologikoaren edo desegin beharreko hondakinaren jatorriaren arabera, erabiliko diren baliabide materialak deskribatzea.
- Hondakin klinikoaren mota desberdinak definitzea, hauek desegiteko dauden prozedurak azalduz.
- Beren jatorri biologikoaren arabera laginen bilketarako prozeduren eskaera teknikoak azaltzea.
- Ospitaleetan laginen manipulazioari eta hondakin klinikoek lotutako osasun-arriskuak deskribatzea, gaixotasun jakin batzuetan arreta berezia jarriz, esate baterako, hepatitisaren edota HIESaren kasuan.

- Laginen bilketari eta hondakinen deuseztatzeari dagokionez, behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Odol-, gernu- eta gorozki-laginak hartzeko beharrezko baliabideak aukeratzea.
 - Odol-, gernu- eta gorozki-laginak hartzeko teknikak burutzea.
 - Gernu- eta gorozki-laginak hartzeko baliabideak garbitu eta desinfektatzea.
 - Lagin eta hondakin klinikoan bilketarako eta deuseztatpenarako tekniketan ezarritako protokoloak errespetatzea.

c) Edukiak

I. multzoa: OSPITALEKO HIGIENEA

Prozedurazkoak:

- Osasun-erabilerako materialen garbiketarako tekniken aplikazioa:
 - Tresneriaren sailkapena.
 - Segurtasun- eta higiene-arauen erabilera egokia.
 - Materialaren eta tresneriaren garbiketa.
- Desinfekzio-tekniken erabilera.
- Esterilizazio-tekniken erabilera.
 - Esterilizazioaren kalitate-kontrolerako metodo desberdinen erabilera (kolorimetrikoak, autoklabeen grafikoak, bakterizidak).
- Kontsultaren edo kabinetearen prestaketa.
- Pazientearen unitatearen prestaketa.
 - Pazientea hartu eta kokatzea.
 - Elementuen kokapena eta ordena.
 - Ohea egitea:
 - * Libre dagoen ohea.
 - * Okupatutako ohea.
 - * Burukoak txukuntzea.
 - * Koltxoia aldatzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Osasungintzako materiala. Sailkapena.
- Desinfekziorako oinarritzko printzipioak: metodo fisikoak eta metodo kimikoak.
- Esterilizaziorako oinarritzko printzipioak: metodo fisikoak, metodo kimikoak eta kalitate-kontrola.
- Pazientearen unitatea: elementuak, paziente hartu eta gelaratzea, segurtasun- eta higiene-neurriak, ohea egiteko teknikak.
- Garbiketarako prozedurak: teknikak, produktuak.
- Kontsultategia/kabinetea: kontsultategi/kabinete bat prestatzeko teknikak, segurtasun- eta higiene-arauak.

Jarrerazkoak:

- Arauak eta protokoloak errespetatu eta betetzeko jarrera.
- Pazientea zaintzeko zereginen kalitatearekiko interesa.
- Adeitasuna pazientearekiko/bezeroarekiko harremanetan.

II. multzoa: INFEKZIO NOSOKOMIALEN PROFILAXIA

Prozedurazkoak:

- Gaixotasun transmitigarrien prebentziorako eta isolamendurako tekniken eta baliabideen aplikazioa:
 - Beharrezkoak diren baliabide materialen aukeraketa.
 - Protokoloaren arabera prozedura egokiaren zehaztapena.
 - Eskuen garbiketa: higienikoa eta kirurgikoa.
 - Txanoa, txabusina, galtzak eta eskularruak janzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Gaixotasun transmitigarrien epidemiologia: Funtsak. Sailkapena. Oinarrizko fisiopatologia. Ospitaleko infekzio edo infekzio nosokomial ohikoenak.
- Gaixotasun transmitigarriak isolatzeko eta prebenitzeko prozedurak: Prebentzio-mailak. Isolamendu-teknikak eta -motak.

Jarrerak:

- Segurtasun- eta higiene-neurrien errespetua.
- Kutsatzeko arriskua izan dezaketen egoeren aurrean ekimena erakustea.
- Proposatutako helburuak lortzeko lan-taldean parte hartzea.
- Protokoloei zorrotz jarraitzea.

III. multzoa: LAGINEN MANIPULAZIOA

Prozedurazkoak:

- Hondakin klinikoen desegitea.
- Laginen bilketa eta garraioa, hauen jatorri biologikoa kontuan hartuta.
- Laginak biltzeko eta hondakinak desegiteko baliabideen garbiketa eta desinfekzioa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Hondakin klinikoak eta lagin biologikoak.
- Hondakin klinikoak deuseztatzeko teknikak.
- Laginen bilketarako teknikak. Baliabide materialak. Garraioa. Osasun-arriskuak.
- Infekzioak. Gaixotasun profesionalak.

Jarrerazkoak:

- Segurtasun- eta higiene-neurrien errespetua.
- Kutsatzeko arriskua duten egoeren aurrean ekimena erakustea.
- Proposatutako helburuak lortzeko lan-taldean parte hartzea.
- Protokoloei zorrotz jarraitzea.

4. lanbide-modulua. OSASUNAREN SUSTAPENA ETA PAZIENTEARENTZAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Pazienteen/bezeroen baitan jokaeraren arloan disfuntzioak eragin ditzaketen egoera psikologikoak aztertzea.
2. Arrisku-taldeetako edo ezaugarri berezietako pazienteek/bezeroek dituzten ezaugarri psikologikoak aztertzea.
3. Osasun-hezkuntzako jardueretan erabiltzen diren metodoak eta baliabideak aplikatzea eta programatzen arabera hauen aplikazioak deskribatzea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Pazienteen/bezeroen baitan jokaeraren arloan disfuntzioak eragin ditzaketen egoera psikologikoak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Umearen garapen ebolutiboa eta afektiboa definitzen duten etapak deskribatzea.
- Nortasunaren osaketari eta garapenari buruz dauden teoria psikologikoen oinarrizko ezaugarriak azaltzea.
- Prestakuntza-maila honetako osasungintzako langileen rol profesionala azaltzea.
- Gaixoaren rola deskribatzea eta erantzun anomalo ohikoenak zerrendatzea.

- Komunikazioaren kontzeptua azaltzea eta berau osatzen duten elementuak deskribatzea.
- Pazientearen eta osasungintzako langileen arteko harremanetan izaten diren faseak eta harreman horretan eragina izan dezaketen faktoreak azaltzea, bai eta hobeia izan dadin horiek kontrolatzeko moduak adieraztea ere.
- Antzietatea zer den azaltzea, honen arrazoiak zerrendatzea eta gaixoaldia zerk eragin dezakeen zehaztea.
- Pazientearen/bezeroaren egoera psikikoaren baloraziorako erabil daitezkeen adierazpen nagusiak identifikatzea honen jokoaren, jarreraren eta ohituren arabera eta antzietatea, suminkortasuna, agresibitatea, apatia edo gogo falta adierazten duen jokabiderik ba ote den sumatzea.
- Pazienteengan/bezeroengan antzietatea saihestu edo murrizteko mekanismo nagusiak deskribatzea, osasungintzako langileen jokabide egokia adieraztea, antzietatea eragin duten arrazoiaren arabera bere burua moldatzea eta zentzu honetan behar adinako ekimenez eta autonomiaz lan egitea.

2. Arrisku-taldeetako edo ezaugarri berezietako pazienteek/bezeroek dituzten ezaugarri psikologikoak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gaixo dauden ume eta nerabeen psikologiaren berezitasunak azaltzea, beraiekin harremanetan jartzeko modu egokiak zehaztuz eta hauen patologiaren arabera egokituz.
- Hirugarren adinaren ezaugarri nagusiak zehaztea, pertsona horiekin laguntza-zentroetan harremanetan jartzeko moduak adieraziz.
- Paziente/bezero terminalen edo gaixotasun kroniko zehatzak edo luzeak dituztenen ezaugarri psikologikoak zehaztea, hauekin erabil daitezkeen laguntza-mekanismoak adieraziz eta berorien arabera egokituz.
- Ezaugarri bereziak dituzten gaixoei buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Patologia espezifikokoak dituzten pertsonetikiko harremanei aurre egitea, kontuan hartu beharko diren aldagai psikologikoak zerrendatuz eta honen gogo-aldarteak hobetzeko izango den jokabidea adieraziz.
 - Kasu bakoitzean egokiak diren segurtasun-neurriak hartzea.
- Hiltzear dagoen gaixo baten fase ebolutiboak zerrendatzea, honen familiakoekin harremanak izateko moduak adieraziz eta bere erantzukizun profesionalaren mugak kontuan hartuta.

3. Osasun-hezkuntzako jardueretan erabiltzen diren metodoak eta baliabideak aplikatzean eta programa-motaren arabera hauen aplikazioak deskribatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Osasunaren sustapenerako programa orok bete behar dituen helburuak zerrendatzea.
- Osasungintzako heziketa-jardueretan informazioa igortzerakoan ohikoak diren metodoak azaltzea, metodo bakoitzaren egokitasuna eta hauen erabilera zuzena zehaztuz.
- Osasunaren sustapenerako programen oinarrizko ezaugarriak azaltzea.
- Gaixotasun berezien prebentziorako programen oinarrizko elementuak deskribatzea.
- Patologia bereziak dituzten pazienteen elkarteak zerrendatzea, hauek laguntzarako garatzen dituzten jardueren oinarrizko ezaugarriak deskribatuz.
- Osasungintzako heziketari buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoera praktikoetan:
 - Egin beharko diren jarduerak identifikatzea.
 - Zuzentzen zaion kolektiboaren arabera laguntzarako erabiliko den materiala hautatzea.
 - Ikaskideen aurrean, osasungintzako heziketa-jarduerak simulatzea eta eredu gisa adieraztea.

c) Edukiak

I. multzoa: PAZIENTEEI/BEZEROEI EMANGO ZAIEN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Prozedurazkoak:

- Pazientearen/bezeroaren egoera psikikoa baloratzeko balio duten adierazpen nagusien identifikazioa.
- Adina, patologia-mota edo egoera psikologiko zehatz bat kontuan hartuta, egoera berezietan dauden pazienteei/bezeroei laguntza psikologikoa emateko mekanismoen aplikazioa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Psikologia orokorraren eta ebolutiboaren oinarriak:
 - Umearen eta nerabearen garapen ebolutibo eta afektiboaren etapak.
 - Nortasunaren azterketa. Nortasunaren garapenari buruzko teoriak. Gizon emakumeek oro har dituzten ezaugarri pertsonalak. Pertsonaren defentsarako mekanismoak.
- Pazientearekiko/bezeroarekiko harremanak:
 - Osasungintzako langileen rol profesionala bere lan-taldean. Erizaintzaren Laguntzako Teknikaria.
 - Pazientearen/bezeroaren rola. Gaixoak.
 - Komunikazioaren kontzeptua. Pazientearen/bezeroaren eta osasungintzako langileen arteko komunikaziorako elementuak. Harremanen baldintzak.
- Baldintza berezietan dauden pertsonen egoera psikologikoa. Onartu beharreko jokabideak.
 - Gaixo dauden ume eta nerabeen berezitasun psikologikoak.
 - Zaharrek usuen izan ohi dituzten ezaugarri psikologikoak.
 - Antsietatea edo angustia. Definizioa, gaixoardian honen agerpena bultzatzen duten kausak eta faktoreak. Defentsarako mekanismoak.
 - Gaixotasun kronikoak edo luzeak dituzten pazienteen /bezeroen ezaugarri psikologikoak eta beharrak (hiesa, minbizia...).
 - Paziente/bezero terminalen ezaugarri psikologikoak eta beharrak eta hauen eboluzioaren fase nagusiak.

Jarrerazkoak:

- Pazientearen/bezeroaren egoera anomaloen aurrean (antsietatea, apatia, agresibitatea, gogo falta...) behaketarako eta erantzuteko prestasuna.
- Pazienteek/bezeroek izan ditzaketen egoera berezien aurrean bere burua moldatzeko jarrera (adina, patologiak...).
- Pazienteekin/bezeroekin lan egiterakoan segurtasun- eta higiene-neurrien errespetua.
- Pazienteekin eta familiakoekin dituzten harremanetan tratu egokia.
- Diskrezioa eta sekretu profesionalari eustea.

II. multzoa: OSASUNAREN SUSTAPENEAN IZANGO DEN PARTAIDETZA

Prozedurazkoak:

- Osasungintzako heziketa-jardueretan informazioa igortzeko erabiltzen diren metodo nagusien erabilera.
- Osasungintzako heziketa nori zuzentzen zaion kontuan hartuta, laguntza emateko materialen hautespena.
- Osasun-sustapenaren esparruko oinarriko programen prestaketa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Osasunaren sustapenerako programak: ezaugarri orokorrak, helburuak, transmisio-metodoak eta programazio bereziak.
- Patologia bereziak dituzten pazienteen kasuan antolatu diren kolektibo nagusiak. Hauen laguntzarako jardueren oinarriko ezaugarriak.

Jarrerazkoak:

- Osasungintzako heziketaren garrantziaren balorazioa.
- Lan-taldean proposatutako helburuak lortzeko laguntza.
- Garatutako lanean txukuntasuna eta zorrotasuna.
- Pazienteek/bezeroek izan ditzaketen egoera berezien aurrean moldatzea.
- Pazienteekin/bezeroekin lan egiterakoan segurtasun- eta higiene-neurrien errespetua.
- Pazienteekin eta familiakoekin dituzten harremanetan tratu egokia.

5. lanbide-modulua. LAGUNTZA ODONTOLOGIKO-ESTOMATOLOGIKOKO TEKNIKAK

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Aho- eta hartz-higieneko materialen prestaketa eta kontserbaziorako beharrezko prozedura teknikoak autonomiaz aztertu eta egitea eta medikuari hauek zuzenean erabiltzeko bidea emango dioten moduan uztea.
2. Aho eta hartzetako ekipoen eta tresnen ezaugarriak aztertzea, prestaketako eta banaketarako beharrezko eragiketak egitea eta jarduketan zehar laguntza ematea.
3. Indarrean dauden arauen arabera eta pelikula erradiografikoen errebelatze- eta artxibatze-lanak eginez, teknika erradiologikoetan laguntza ematea.
4. Paziente/bezero-motaren arabera, hartzetako interbentzio-prozesuetan kontuan hartu beharreko laguntza fisiko eta psikologikoak aztertu eta aplikatzea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Aho- eta hartz-higieneko materialen prestaketa eta kontserbaziorako beharrezko prozedura teknikoak autonomiaz aztertu eta egitean eta medikuari hauek zuzenean erabiltzeko bidea emango dioten moduan uztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kontsultategi odontologikoetan erabili ohi diren hartz-materialen ezaugarri fisiko-kimikoak eta hauen ezaugarriak eta prestaketarako prozedurak deskribatzea.
- Hartz-materialen kontserbaziorako prozedurak deskribatzea, hala, hauen errendimendua hobetuko baita.
- Hartz-materialak medikuak eskatu aurretik prest izateko eragiketak azaltzea.
- Hartz-materialen prestaketari buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Behar den material-mota, edo behar direnak, identifikatzea.
 - Material kopurua eta proportzio egokiak prestatzea.
 - Eskuz eta mekanikoki, hartz-materialaren osagarriak nahastu, espatulatu eta/edo irabiatzea, deskribatutako eskaeren arabera ehundura egokia lortu beharko delarik.
 - Material-moten arabera euskarri gisa baliabide egokiak erabiliz, prestatutako materiala banatzea.
 - Hartz-materialak autonomiaz, azkartasunez eta txukuntasunez erabiltzea.

2. Aho eta hartzetako ekipoen eta tresnen ezaugarriak aztertzean, prestaketako eta banaketarako beharrezko eragiketak egitean eta jarduketan zehar laguntza ematean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Eskuzko hartz-tresneria, hauen prestaketarako ezaugarriak eta ebakuntza-teknika desberdinak deskribatzea.
- Idazketa eta erregistroetarako euskarri desberdinak azaltzea, hartz-anatomian erabiltzen den nomenklatura landuz.
- "Lau" edo "sei" eskuko teknikak deskribatzea, taldeko kide bakoitzak egin beharko dituen lanak aplikatuz.
- Lan egingo den hartz-eremuaren erabateko isolamendua nahiz isolamendu partziala egiteko teknikak deskribatzea, zeregin bakoitzerako beharrezko baliabideak zerrendatuz.
- Hartz-ekipoaren eta errotazio-tresneriaren ezaugarriak, erabilerak, prebentziozko mantentzea eta maneia oinarrian deskribatzea.
- Aho eta hortzen garbiketa eta desinfekziorako berariazko prozedurak azaltzea, materialaren ezaugarrien eta hauei ematen zaien erabileraren arabera egokiena zein den adieraziz.
- Laguntza odontologiko-estomatologikoei buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Txukuntasunez eta ordenari jarraiki, historia klinikoa prestatzea, beharrezkoa den informaziorik ez dela falta kontuan hartuta.
 - Aztergai den kasuaren hartz-fitxa zuzen egitea.
 - Egin beharreko teknikaren arabera erabiliko den materiala hautatu eta prestatzea.
 - Teknika jakin batetarako hartz-ekipoa eta beharrezkoa den errotazio-tresneria zehatza prest izatea, hauen garbiketa eta esterilizazioa ziurtatuz.
 - Teknikak eskatzen duten argiztapen egokia zehaztea.
 - Erabiliko den materiala eta tresneria teknika burutzerakoan momentu eta modu egokietan ematea.
 - Medikuen interbentzio-garaian lan egiten ari den eremua xurgatu eta argitzea.

- Gomazko dikeak erabiliz lan egingo den eremua isolatzea.
- Lan-egoera desberdinetan lau eta sei eskuko laguntza-teknikak burutzea.
- Erabili den materialaren garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa egitea.
- Jarduketaren simulazioan erabili ohi den dokumentazio-artxibora jotzea.

3. Indarrean dauden arauen arabera eta pelikula erradiografikoen errebelatze- eta artxibatze-lanak eginez, teknika erradiologikoetan laguntza ematean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Aho eta hortzen azalpen erradiografikoetarako errebelatze- eta artxibatze-prozedurak adieraztea.
- Aho-erregistro erradiografikoak lortzeko beharrezkoak diren materialak hautatzea, hauen proiektzio-mota eta aztertutako inguru anatomikoa kontuan hartuta zerrendatuz.
- Aho eta hortz-higieneko kontsultategietan erradiologia-babeserako arau orokorrak eta pertsonalak zehaztea eta egoki izanez gero, aplikatzea.
- Hortz-erradiografien proiektzioen burutzapenari buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Proposatutako kasuen arabera pelikula-mota aukeratzea.
 - Posizio-tresnak eta gainontzeko elementu osagarriak prestatzea.
 - Erradiologia-babeserako definitutako teknika bakoitzaren arabera ezarritako protokolei jarraiki, eredu batean jarri beharreko elementuak prestatzea eta kokatzea.
 - Osasungintzako langileen erradiologia-babeserako arauak errespetatzea.
 - Aurrez inprimatutako pelikula bat errebelatu, finkatu eta lehortzea.
 - Erradiografia-mota desberdinekin jarraitu beharreko identifikazio-, kontserbazio- eta artxibatze-neurri egokiak hartzea.

4. Paziente/bezero-motaren arabera, hortzetako interbentzio-prozesuetan kontuan hartu beharreko laguntza fisiko eta psikologikoak aztertu eta aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Aparatu estomatognatikoaren inerbazioaren oinarritzko ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea.
- Aho-barrunbean erabili ohi diren anestesikoen zeregina eta oharrak azaltzea.
- Anestesia lokaleko teknikaren burutzapenean izan daitezkeen arazo nagusiak zerrendatzea.
- Hortz-interbentzio bat egin aurretik edo egiterakoan izaten den antsietatea murrizteko lasaitzea eta laguntza psikologikoa emateko teknikak deskribatzea.
- Hortz-besaulkian pazientea ondo kokatzeko zereginak azaltzea.
- Hortz-interbentzio baten aurretik eta ondorenean pazientearekin jarduteko arauak azaltzea, hala, operazio aurreko nahiz ondoko prozesua errazteko, aplikatu zaion hortz-teknikaren arabera.
- Pazientearentzako laguntza psikologikoari buruz behar bezala deskribatutako suposizio-egoeretan:
 - Lasaitzeko oinarritzko teknikak garatzea.
 - Pazientea hortz-besaulkian ondo kokatzeko zereginak egitea.

c) Edukiak

I. multzoa: HORTZ-ERRADIOLOGIA

Prozedurazkoak:

- Pelikula erradiografikoen erabilera:
 - Hortzetako pelikula erradiografikoen sailkapena.
 - Pelikula erradiografikoan beren euskarri egokietan kokatzeko lanak.
 - Pelikula erradiografikoen identifikazioa eta artxiboa.
- Pelikula erradiografikoen errebelatua.
 - Errebelatueterako ontzien prestaketa.
 - Pelikula erradiografikoen errebelatze-lana.
 - Pelikula erradiografikoen finkadura eta lehorketa.

- Teknika bakoitzaren kasuan protokoloen bidez adierazitako erradiologia-babeserako elementuen ezarpena.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Pelikula erradiografikoak: Hortzetako pelikulen motak. Ezaugarriak eta oharrak.
- Euskarriztat erabiltzeko materialak. Euskarri-mota desberdinak eta bakoitzaren kasuan kontuan hartu beharreko oharrak.
- Segurtasun-neurriak: Erradiologia-babeserako elementuak. Erradiazio ionizatzaileak materiaren baitan dituen efektuak.
- Teknika erradiologikoak: Aho-barnekoak (periapikalak, intraproximalak eta oklusalak). Aho-kanpokoak (frontalak, albokoak eta bertikalak). Bereziak (panoramikoa, tomografía).
- Erradiografiak errebelatzeko teknikak: errebelatzea, finkadura eta lehorketa.
- Erradiografiak kontserbatu eta artxibatzeko teknikak.

Jarrerazkoak:

- Ezarritako segurtasun- eta protokolo-neurrien errespetua.
- Lana garatzerakoan autonomia.
- Zorroztasuna lanean.

II. multzoa: HORTZ-KONTSULTATEGIETAKO MATERIALAK, EKIPOA ETA TRESNERIA

Prozedurazkoak:

- Hertz-materialen prestaketa, kontserbazioa eta erabilera:
 - Hertz-kabinete batean erabiltzen diren eskaiolen prestaketa.
 - Eskaiola molde zehatz batzuetara hustea.
 - Inprimatzeko materialen prestaketa.
 - Inprimatzeko tekniken burutzapena.
 - Obturaziorako materialen prestaketa eta banaketa.
 - Zementatze-lanetarako materialaren prestaketa eta banaketa.
- Hertz-kontsultategietako ekipo eta tresna berezien prestaketa eta erabilera.
 - Hertz-ekipoaren eta errotazio-materialaren prestaketa.
 - Pazientea hertz-besaulkian kokatzea.
 - Ebakuntza- eta kirurgia-tekniketan odontologoari laguntzea.
 - Isolamendu- eta zurgaketa-tekniketan odontologoari laguntzea.
 - Esku hartuko den eremuaren argiztapen egokia.
 - Hertz-materialen, tresnen eta ekipoen garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Hertz-materialak:
 - Eskaiolak. Motak eta ezaugarriak.
 - Inprimatzeko materialak. Alginatoak, hidrokoloideak, silikonak.
 - Obturaziorako materialak. Amalgamak, konpositeak.
 - Beste zenbait material: babesteko bernizak, hertz-eransgarriak, argizariak, zementuak...
 - Material horien kontserbaziorako eta prestaketarako arauak.
- Ekipoak eta tresnak:
 - Hertz-ekipoen elementuak.
 - Pazientea besaulkian kokatzeko teknikak.
 - Eskuz erabiltzeko tresneria eta errotazio-tresnak. Sailkapena. Oharrak.
 - Isolamendu-teknikak. Gomazko dikeak, kotoizko erroiluak, bereizgailuak.
 - Hertz-tresneria prest eta eskura izateko teknikak. Teknikarien kokapena. Lau eskuko teknika. Sei eskuko teknika.
 - Ekipoen, materialen eta tresneriaren garbiketarako, desinfekziorako eta esterilizaziorako teknikak.

Jarrerazkoak:

- Txukuntasuna eta zorroztasuna egin den lanean.
- Lan-taldean ezarritako arauen errespetua.

- Ezarritako segurtasun- eta protokolo-neurrien mantentzea.

III. multzoa: PAZIENTEARENTZAKO/BEZEROARENTZAKO LAGUNTZA

Prozedurazkoak:

- Aho eta hortzen barrunbeko egitura anatomikoaren identifikazioa.
- Dokumentazio klinikoaren elaborazioa eta maneia.
 - Historia kliniko baten osaketa.
 - Hertz-fitxa baten osaketa.
 - Dokumentuen artxiboak.
- Ebakuntza-jarduketaren ondoren sor daitezkeen zailtasunei eta ebakuntza-jarduketaren aurretik aztertu beharreko lanerako arauetako buruzko informazioaren elaborazioa.
- Pazientea lasaitu eta psikologikoki laguntzeko teknika xumeen aplikazioa.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Aho eta hortzen barrunbeko anatomia eta fisiologia
- Dokumentazio klinikoa: Hertz-fitxak. Historia klinikoa. Artxibatze metodoak.
- Anestesikoak: motak eta ezaugarriak.
- Operazio ondoko sintomak. Konplikazioak.
- Pazientea lasaitu eta laguntza psikologikoa emateko teknikak.

Jarrerazkoak:

- Txukuntasuna eta zorrotasuna dokumentuen erabileran.
- Zuzentasuna pazientearekiko/bezeroarekiko harremanetan.

6. lanbide-modulua. LAN-TALDEKO HARREMANAK

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Lanbide-irudi honi loturiko lan-jardueren garapenean sortzen diren komunikazio-prozesuak aztertzea.
2. Lan-jardueren garapenean eta ingurunean sortzen diren gatazkak saihesteko eta, hala badagokio, ebazteko –bere mailan eta bere gaitasunen esparruan– prozedurak ezartzea.
3. Talde-laneko prozedurak ezartzea, lan-taldearen beharrak eta lan-esparruan proposatutako helburuak integratu eta koordinatuz, betiere bere mailan eta bere gaitasunen esparruan.
4. Lan-bileretan parte hartzea, bileren garapenean eta helburuak lortzeko ahaleginetan aktiboki lankidetzan jardunez.
5. Lan-giroa hobe dadin eta pertsonen enpresaren helburuekiko konpromisoa bere egin dezaten bultzatzeko lan-ingurunean motibatze elementuak, prozesuak eta/edo teknikak aztertzea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Lanbide-irudi honi loturiko lan-jardueren garapenean sortzen diren komunikazio-prozesuak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Komunikazio-prozesu baten oinarriko elementuak deskribatzea.
- Komunikazio-prozesuaren etapak sailkatu eta zehaztea.
- Komunikazioa eragozten duten oztopoak eta interferentziak identifikatzea.
- Argibideak hartzeko suposizio praktikoetan argibideen edukia aztertzea, ondokoa bereiziz:
 - argibideen funtsezko helburua.
 - berau burutzeko autonomiaren maila.
 - lortu beharreko emaitzak.
 - zein pertsonari luzatu behar zaion informazioa.
 - argibideak bete diren nork kontrolatu behar duen eta nola eta noiz egin behar den.

- Zenbait zeregin, lan edo mugimenduren burutzapen praktikoa transmititzea, komunikazioaren eraginkortasuna egiaztatuz.
- Egoerak hitzez deskribatzeko eta hizkuntza zuzen erabiltzeko interesa azaltzea.

2. Lan-jardueren garapenean eta ingurunean sortzen diren gatazkak saihesteko eta, hala badagokio, ebazteko –bere mailan eta bere gaitasunen esparruan– prozedurak ezartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gatazka bat sortzen duten problemak, faktoreak eta arrazoiak kasu praktikoetan identifikatzea.
- Problemei irtenbideak bilatzean irimotasuna eta tinkotasuna azaltzea.
- Datu eta iritzien artean bereiztea.
- Norberak zein besteek jarrera bat hartzean arrazoiak eta argudioak exijitzea.
- Jarraitu den prozesua eta problema baten ebazpenean lortutako emaitzak argi eta garbi eta ordenaturik aurkeztea.
- Negoziazio-egoera batean azal daitezkeen portaera-mota desberdinak eta hauen eraginkortasuna identifikatzea.
- Talde bateko kide desberdinen arteko presioak eta interesak orekaz eta harmoniaz gainditzea.
- Erakunde bateko langileen eta zuzendaritzaren artean gerta daitezkeen jarrera eta interes desberdinak azaltzea.
- Beste iritzi batzuk errespetatzea, norberaren jokabide, pentsamendu edo ideiekin bat ez datozen jokabide, pentsamendu edo ideiekin tolerantziaz jardutea.
- Arduraz eta koherentziaz jardutea.

3. Talde-laneko prozedurak ezartzean, lan-taldearen beharrak eta lan-esparruan proposatutako helburuak integratu eta koordinatuz, betiere bere mailan eta bere gaitasunen esparruan, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Talde baten funtzionamenduaren funtsezko elementuak eta taldearen dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatzea.
- Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaltzea.
- Talde-lanaren estiloak aztertzea.
- Lan-talde baten garapenaren faseak deskribatzea.
- Taldekideen tipologia identifikatzea.
- Lan-taldean funtzionamenduan sortu ohi diren arazoak deskribatzea.
- Lan-taldean erabakiak hartzeko prozesua deskribatzea: parte-hartzea eta adostasuna.
- Taldera egokitu eta integratzea, lankidetzan jardunez, zuzenduz edo aginduak betez, kasuak kasu.
- Lan-taldeak dinamizatzeako teknikak aplikatzea.
- Talde-lan bat egiterakoan edo adostasuna eskatzen duten erabakiak hartzerakoan parte hartzea.
- Taldeak onartzen dituen arauetako adostasuna azaltzea.

4. Lan-bileretan parte hartzean, bileren garapenean eta helburuak lortzeko ahaleginetan aktiboki lankidetzan jardunez, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Bilera-mota desberdinak eta bileren funtzio desberdinak deskribatzea.
- Bilera bateko partaideen tipologia identifikatzea.
- Bilera baten garapenaren etapak deskribatzea.
- Bilerak moderatzeko teknikak aplikatzea.
- Nork bere ideiak argi eta zehatz azaltzea.

5. Lan-giroa hobe dadin eta pertsonen enpresaren helburuekiko konpromisoa bere egin dezaten bultzatzeko lan-ingurunean motibatzeako elementuak, prozesuak eta/edo teknikak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Motibazioaren teoria nagusiak deskribatzea.
- Motibazioa definitzea eta motibazioak lan-ingurunean duen garrantzia definitzea.

- Lan-ingurunean aplika daitezkeen motibatze teknikak identifikatzea.
- Lan-giroaren kontzeptua definitzea eta motibazioarekin lotzea.

c) Edukiak

I. multzoa: KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN

Prozedurazkoak:

- Zenbait helburu lortzeko argibideak ahoz komunikatzea.
- Adierazpen-komunikazioa erabiltzea (mintzatzea-idaztea).
- Hartze-komunikazioa erabiltzea (entzutea-irakurtzea).

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Komunikazio-motak eta komunikazio-prozesu baten etapak.
- Interferentziak eta oztopoak komunikazioan.

Jarrerazkoak:

- Egoeren hitzeko deskribapenean eta lengoaiaren erabileran zuzentasuna eta zuhurtasuna.

II. multzoa: TALDE-LANA ETA LAN-BILERAK. MOTIBAZIOA

Prozedurazkoak:

- Problema ebazteko eta erabakiak hartzeko gehien erabiltzen diren metodoak aplikatzea.
- Problema ebazteko prozesuaren eta lortutako emaitzen aurkezpen antolatua.
- Taldeak dinamizatzeko teknikak aplikatzea.
- Lan-bileren antolamenduan eta garapenean parte hartzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Negoziazioaren kontzeptuak eta elementuak eta negoziatzeko estrategiak: problema ebazteko prozesua.
- Talde-motak eta lan-metodologiak.
- Bilera-motak. Bilera talde-lan gisa.
- Motibazioa: kontzeptuak eta printzipioak.
- Lan-giroaren kontzeptua.

Jarrerazkoak:

- Indibidua taldearen parte gisa.
- Norberaren ideekin bat ez datozen ideiekiko portaera tolerantia.
- Adostasuna lortzeko ahaleginean tinko irautea.
- Erantzukizuna hartutako erabakiekin.

7. lanbide-modulua. LAN-PRESTAKUNTZA ETA -ORIENTABIDEA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Titulazioan adierazitako jarduera-eremuan, osasunean eragina izan dezaketen arriskurik ohikoenak antzematea eta dagozkien babes- eta prebentzio-neurriak aplikatzea.
2. Simulatutako egoeretan, istripuaren lekuan berehalako oinarrizko osasun-neurriak aplikatzea.
3. Lan-kontratazio modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzea.
4. Enplegua bilatzeko teknikak aztertzea, norberak dituen gaitasunak eta interesak eta lanbide-ibilbide egokiena identifikatuz.

5. Lanaren lege-esparrua interpretatzea eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztea.

b) Ebaluazio-irizpideak

1. Titulazioan adierazitako jarduera-eremuan, osasunean eragina izan dezaketen arriskurik ohikoenak antzematean eta dagozkien babes- eta prebentzio-neurriak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Dagokion lan-eremuan ohikoenak diren arrisku-egoerak eta/edo -faktoreak identifikatzea.
- Lanbidetik ondorioztatzen diren gaixotasunak, osasunerako kalteak eta lan-istripuak deskribatzea, titulazioan adierazten diren jardueretan aritzean.
- Sektorean aplikatu ohi diren babes- eta/edo prebentzio-teknikak deskribatzea.
- Prebentzio- eta/edo babes-ekintzarako teknika orokorrak dagokion lan-eremuan ohikoak diren arrisku-egoera eta/edo -faktoreekin erlazionatzea.
- Enpresaren barruan nahiz enpresatik kanpo segurtasun-arloan eskumena duten organoak identifikatzea.
- Sektoreko ohiko kontingentzietara egokitutako suposizioetan aplikatu behar diren prebentzio- eta/edo babes-neurriak zehaztea.
- Arriskuen prebentzioan laguntzea.
- Segurtasun- eta higiene-arauak eta ingurunea babesteari buruzkoak errespetatzea, titulazioan adierazitako jardueretan aritzean.
- Prebentzioa osasunerako kalteak saihesteko baliabide gisa baloratzea.

2. Simulatutako egoeretan, istripuaren lekuan berehalako oinarrizko osasun-neurriak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lesioak bizitzan sor dezaketen arrisku-mailaren arabera sailkatzea.
- Ekintza- edo protokolo-prozesua azaltzea, lan egitean gertatu ohi diren lesio eta/edo istripuen aurrean.
- Lesionatu batzuk edo asko izanez gero, esku hartzeko garaian lehentasuna identifikatzea, lesioek berez bizitzan sor dezaketen arrisku-mailaren arabera.
- Aurreko kasuan izandako lesioen arabera aplikatu beharreko neurrien sekuentzia identifikatzea.
- Oinarrizko osasun-teknikak burutzea (arnasketa artifizia, inmobilizazioa, bihotz-masajea, lekualdaketa eta abar), ezarritako protokoloak aplikatuz.
- Istripurik gertatuz gero berehala eta eraginkortasunez jokatzeko.
- Lan koordinatua kontingentziak konpontzeko metodo eraginkorrena dela kontuan hartzea.

3. Lan-kontratazio modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Dagokion produkzio-sektoreko lan-kontratazio modalitate desberdinak deskribatzea, horien ezaugarriak iraupenaren, ordainsariaren eta/edo bestelako aldagai garrantzitsuen arabera azalduz.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzak ezarritakoak deskribatzea, norberaren konturako langile gisa.
- Autonomo bati dagozkion enpresa- edo lanbide-jarduerak martxan jartzeko garaian parte hartzen duten erakundeak adieraztea, kasu bakoitzean egin beharreko tramiteak azalduz.
- Lan-munduratzeko bide posible gisa norberaren konturako lana eta besteren konturakoa kontrastatzea, kasu bakoitzari dagozkion inplikazioak aztertuz eta norberaren interesen arabera horietako bat aukeratzuz.
- Inprimaki ofizialetan, moduluen edo koefizienteen arabeko estimazio objektiboaren erregimeneko zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzari buruzko dokumentazioa betetzea, hain zuzen ere norberaren konturako langile gisa finkatzearen ondorioz.
- Inprimaki ofizialetan norberaren konturako langile gisa aritzeko beharrezko dokumentuak betetzea.
- Egon daitezkeen finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo abantailak ezagutzeko, langile autonomo gisa lanean aritzeko.

4. Enplegua bilatzeko teknikak aztertzean, norberak dituen gaitasunak eta interesak eta lanbide-ibilbide egokiena identifikatuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lortutako gaitasun, jarrera eta ezagutzetatik eratorritako balio profesionala identifikatzea.
- Norberaren interesak eta motibazioak definitzea, hala badagokio, sexuaren arabeko baldintzak eta beste izaera batekoak saihestuz.
- Dagokion eremuko lan-eskariaren baldintzak interpretatzea, lortutako balio profesionalarekin erlazionatuz.
- Lan-munduratzeko aukerak izan ditzakeen zonako prestakuntza-eskaintzari eta enpresa-ehunari buruzko informazio-iturriak erabiltzea, enplegu-eskaintzarekiko dituen iguripenei lotuta enpresaren datuak eta informazioa lortuz.
- Prestakuntza-premia osagarriak ondorioztatzea, dituen enplegu-aukerak zabaltzeko eta/edo behin enplegua lortu ondoren aberastasun profesionala lortzeko.
- Prestakuntza-ibilbideak ezartzea antzemandako beharren arabera.
- Enplegua lortzeko teknikak prestatzea, elkarriketak egitea, testak betetzea eta abar bezalako simulazioen bidez.
- Enplegu batean aurkezteko eta/edo eskaria egiteko dokumentuak lantzea.
- Behar profesional gisa, prestakuntza zabaldu eta jarraitzeko ekimena izatea.

5. Lanaren lege-esparrua interpretatzean eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak azaltzea (Konstituzioa, Langileen Estatutua, Europako Batasunaren Arteztarauak, Hitzarmen Kolektiboa eta abar), dagozkion eskubideak eta betebeharrak bereiziz.
- Negoziazio kolektiborako bideak deskribatzea, negoziatu ohi diren aldagai garrantzitsuenak adieraziz: soldata, segurtasuna eta higiena, produktibitatea eta abar.
- Besteren konturako langileentzako Gizarte Segurantzaren prestazioak eta betebeharrak identifikatzea.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak suposizio desberdinetan oinarrituz kalkulatzea.
- Oinarrizko soldata-agiriak suposizio desberdinetan oinarrituz formalizatzea, horietan agertzen diren kontzeptuak interpretatuz (soldata gordina, PFEZ atxikipena, Gizarte Segurantzaren kuotak eta abar).
- Suposizio desberdinetan oinarrituz hartzekoen likidazioak kalkulatzea, agertzen diren kontzeptuak interpretatuz.
- Inprimaki ofizialetan PFEZren aitorten sinpleak betetzea, lortutako errendimendu desberdinak identifikatuz eta zerga-zorra kalkulatzuz.
- Gerta daitekeen lan-baldintzak negoziatzeko egoera batean besteen iritzia errespetatuz.

c) Edukiak

I. multzoa: SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Prozedurazkoak:

- Segurtasun- eta higiene-arloan eskumena duten organismoak identifikatzea.
- Arriskuen prebentzioa: prozedurak.
- Lesioen arriskuaren arabera esku hartzea: lehenbaiten identifikazioa eta aplikatu beharreko neurrien sekuentziak.
- Zaurituen ebakuazioa eta laguntza: antolaketa.
- Oinarrizko osasun-teknikez baliatzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lanbide-gaixotasunak, osasunari egindako kalteak eta lan-istripuak: arriskuaren arabeko sailkapena.
- Babes-teknikak eta/edo prebentzio-teknikak lanean.
- Lesioak: bizitzarentzat duten arriskuaren arabera sailkatuta.
- Lehen laguntzak.
- Ingurumena eta industria- edo zerbitzu-prozesuak.

Jarrerazkoak:

- Istripuen aurrean erantzun azkarra eta eraginkorra ematea.
- Segurtasun- eta higiene-arauak eta ingurumenaren babesari buruzkoak errespetatzea eta betetzea.
- Lanbidearen jardunean ingurumena babestearen aldeko konpromisoa hartzea.
- Prebentzioa osasunean kalterik ez izateko modurik eraginkorrena dela baloratzea.
- Arriskuen prebentzian eta kontingentzien aurrean parte hartzea, lan-taldean integratuz.

II. multzoa: LAN-ESPARRUA

Prozedurazkoak:

- Banako enpresa bat sortzeko dokumentazioa betetzea.
- Norberaren konturako lanean zerga-betebeharrei buruzko dokumentazioa nahiz Gizarte Segurantzaren dokumentazioa betetzea.
- Egon daitezkeen finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo bestelako abantaila batzuk ezagutzea, norberaren konturako lanean jarduteko.
- Lortutako gaitasun, jarrera eta ezagutzetatik eratorritako balio profesionala identifikatzea eta norberaren interesak eta motibazioak definitzea.
- Dagokion lanbide-eremuan dagoen lan-eskariaren baldintzak interpretatzea eta prestakuntza-premiak ondorioztatzea.
- Enpresa-ehunari eta prestakuntza-aukerei buruzko informazio-iturriak erabiltzea.
- Bere hasierako prestakuntza osatuko duten prestakuntza-ibilbideak ezartzea.
- Enplegua lortzeko teknikak prestatzea eta dokumentuak lantzea.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak kalkulatzeko.
- Hartzekoen likidazioak interpretatzea eta kalkulatzeko.
- Oinarrizko soldata-agiriak interpretatzea eta formalizatzea.
- Errendimenduak identifikatzea eta zerga-zorra kalkulatzeko PFEZen.
- Norberaren konturako lana eta besteren konturako lana konparatzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lan-kontratazioaren modalitateak: ezaugarriak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzak ezarritakoak norberaren konturako lanean.
- Autonomo batek enpresa- edo lanbide-jarduera bat martxan jartzeko zer erakundetara jo behar duen eta egin beharreko tramitazioaren eskema zein den.
- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Langileen Estatutuak, Europako Batasunaren Arteztarauak, Hitzarmen Kolektiboa eta abar.
- Negoziazio kolektiboa.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta honekiko betebeharrak, besteren konturako lanean.
- Lanbide-esperientzia eta etengabeko prestakuntza: lanbide-promoziorako ibilbidea, birziklatzeko ohiko ikastaroak, ikastaro horiek ematen dituzten erakundeak, titulazioari lotutako unibertsitate-ikasketak eta unibertsitateaz kanpokoak.

Jarrerazkoak:

- Norberaren interesak definitzeko garaian adin, sexu eta bestelako baldintzei buruz gogoeta egitea.
- Dagokion lanbidean aurrerapen teknologikoen eskatutako prestakuntza lortzeko prest egotea.
- Gizarte- eta ekonomia-inguruetik informazioa lortzeko ekimena izatea.
- Lanean hastearen ondorioz beste pertsona batzuekiko edo organismoekiko sortzen diren betebeharrak betetzea.
- Lan-harremana zuzentzen duten arauak errespetatzea.

8. lanbide-modulua. KALITATEA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzea, tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki.
2. Kalitatea ziurtatzeko aplika daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzea, lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz.
3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzea.

c) Ebaluazio-irizpideak

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzean (tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa deskribatzea, tituluari dagozkion jarduera esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarritzko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdi eta elementuak identifikatzea.

2. Kalitatea ziurtatzeko aplika daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzean (lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauen (Europakoak bereziki) edukia interpretatzea.
- Prozesuetan kalitatea ziurtatzeko aplika daitezkeen arauak bere lanbide-eremuko jarduerarik esanguratsuenekin lotzea.

3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Suposizio erreal edo simulatueta:
 - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.
 - Oinarritzko kalitate-erremintak erabiltzea.
 - Lanbide-harremanen hobekuntza eta jardueren garapenean inplikatzeko azturak hartzea.
 - Etengabeko hobekuntza oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
 - Etengabeko hobekuntza oinarritutako eta bere lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

c) Edukiak

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa deskribatzea, tituluari dagozkion jarduera esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarritzko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdiak eta elementuak identifikatzea.
- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauak (Europakoak bereziki) interpretatzea.
- Kalitatea ziurtatzeko aplika daitezkeen arauak eta Osasungintza sektoreko prozesu eta jarduerarik esanguratsuenekiko loturak identifikatzea.
- Tituluari dagokion lanbide-gaitasunaren prozesu edo jarduera esanguratsu baten edo batzuen datuetatik eta gainerako aldagai deskribatzaileetatik abiatuta eta guztia sektoreko balizko enpresa batean kokatuta:
 - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.

- Oinarrizko kalitate-erremintak erabiltzea.
- Harremanetan eta jardueren garapenean hobekuntza pertsonaleko jarrerak eta azturak hartu eta ezartzea.
- Bere mailan, etengabeko hobekuntzan oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
- Etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta bere lanbide-eremuari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

9. lanbide-modulua. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Enpresan beti erantzukizunez jokatzeko.
2. Ahoz kanpoko nahiz aho barruko interbentzioetako tekniken burutzapenean, hortz-kontsultategi batean dentistari laguntzea.
3. Ezarritako arauen arabera identifikatuz, errebelatuz eta artxibatuz, aho eta hortzen erradiografi erregistroetan parte hartzea.
4. Erakundean ezarritako jarraibideen arabera, pazienteei/bezeroei eta hauen senitartekoei beren jokabideak hobetzeko eta osasun-ohiturak sustatzeko informazioa ematea.
5. Osasungintzako materiala eta tresneria garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko erakundearen berezko teknikak burutzea.
6. Betiere arauak errespetatuz eta tratu zuzena izanez, ohean dauden pazienteen/bezeroen higienarako eta libre dagoen ohea nahiz ohe okupatua aldatzeko teknikak burutzea.
7. Gaixoen/bezeroen tenperatura hartzea eta irazkinak biltzea eta bidezko erregistroak ordenaz eta zehaztasunez egitea.
8. Unitate eta egoera desberdinetan dauden pazienteei erizaintzaren oinarrizko teknikak aplikatzea, tratu zuzena izanez.
9. Zerbitzu eta/edo kontsultategi mediko batean administrazioaren kudeaketako eta biltegiaren kontrolerako teknikak burutzea.

b) Ebaluazio irizpideak

1. Enpresan beti erantzukizunez jokatzeko, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erakundean ezarritako protokoloak eta lanerako jarraibideak errespetatzeko jarrera erakustea.
- Oinarrizko osasun- eta segurtasun-neurriak eta erakundeak ezarritakoak aplikatzea eta lanerako jantzi egokiak erabiltzea.
- Pazientearekin/bezeroarekin erlazioak izaterakoan honen egoerara eta/edo ezaugarrietara egokitzea, tratu zuzena emanez, bere intimitatea errespetatuz eta sekretu profesionalari eutsiz.
- Jasotako jarraibideak interpretatzea, arreta handiz betetzea eta esleitu zaion lanaren erantzule izatea, momentu bakoitzean dagokion pertsonarekin komunikazio egokia izanez.
- Bere lana gainontzeko langileekin koordinatzea, edozein aldaketa, premia edo aurreikusi gabeko kontigentziaren bat sortuz gero, horren berri emanez.
- Erakundean ezarritako jarraibide eta euskarrien arabera bere lana egiterakoan dagokion dokumentazioa betetzea.
- Lantokiko pertsonekin harreman onak eta zuzenak izatea.
- Lanpostuan sartzerakoan puntuala izatea, har ditzakeen atsedenaldiak hartuz eta, behar bezala justifikatutako arrazoirik ez badu, hura erabakitako ordua baino lehen utzi gabe.
- Txandakako lanen kasuan, aurretik izan duenak eskaini diezaiokeen informazio guztia lortzea edota, lanean aritu den denboraldia amaitu ondoren, hurrengoari informazio guztia ematea.
- Osasungintzako zainketa eta zerbitzuen prozesuetan bere jarduerak zer-nolako eragina izan dezakeen aztertzea.

2. Ahoz kanpoko nahiz aho barruko interbentzioetako tekniken burutzapenean, hortz-kontsultategi batean dentistari laguntzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erabili beharreko materialak eskatzen zaizkion kalitate- eta esterilitate-baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Zehaztapenen arabera, interbentzioak egiteko beharrezko materialaren mota eta kantitatea hautatu eta prestatzea.
- Behar duen tresneria eskura izatea eta burutzen duen teknikaren arabera sekuentziaztea.
- Materialaren hondakinak biltzea eta erabili den tresneria garbitzea, hortz-besaulkia beste bezero/paziente batentzako prest utziz.

3. Ezarritako arauen arabera identifikatuz, errebelatuz eta artxibatuz, aho eta hortzen erradiografi erregistroetan parte hartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Azterketarako erabiliko den teknika kontuan hartuta erabiliko den pelikula erradiografikoaren mota aukeratzea.
- Pazienteari/bezeroari erradiologia-babesa emateko baliabideak eskura izatea, garatzen ari diren teknikaren arabera.
- Bere burua babesteko neurriak hartzea.
- Errebelatu, erregistratua lehortu eta ziurtasun osoz identifikatu.
- Interbentzioaren hortz-fitxarekin batera, erregistroa pazientearen/bezeroaren historia klinikoan artxibatu.

4. Erakundean ezarritako jarraibideen arabera, pazienteei/bezeroei eta hauen senitartekoei beren jokabideak hobetzeko eta osasun-ohiturak sustatzeko informazioa ematean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pazientei/bezeroi eta/edo senitartekoei medikuaren adierazpenen eta prozesuaren etapan berri ematea, ezarritako tratamenduaren eragin terapeutikoak sustatu asmoz.
- Pazientei/bezeroi eta/edo senitartekoei osasunari buruz behar duten informazioa ematea, erakundean erabakita dagoenari jarraiki, ohitura osasungarriak eta lagungarriak indartzeko.

5. Osasungintzako materiala eta tresneria garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko erakundearen berezko teknikak burutzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erabili eta botatzekoa ez den tresneria eta materiala sailkatzea, ezarritako prozeduraren eta hauen garbiketarako, desinfekzioarako eta ondorengo esterilizazioarako beharrezkoak diren produktuen arabera.
- Materialaren eta tresneriaren esterilizazio-maila egiaztatzea test kimikoak eta/edo biologikoak irakurriz.
- Kontsultategi baten edo pazientearen unitate baten funtzionamenduan sortzen diren hondakin organiko nahiz ez-organikoak deuseztatzea, beren jatorriaren eta erakundean ezarritako jarraibideen arabera teknika egokienak aplikatuz.
- Material-motaren eta honen erabileraren arabera ezarritako teknikak aplikatuz, osasungintzako tresneriak desinfektatzea.

6. Betiere arauak errespetatuz eta tratu zuzena izanez, ohean dauden pazienteen/bezeroen higienarako eta libre dagoen ohea nahiz ohe okupatua aldatzeko teknikak burutzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erakundean ezarrita dauden protokoloak eta lanerako jarraibideak errespetatzea.

- Pazienteari/bezeroari tratu zuzena eta egokia ematea beti, berau informatuz eta intimitatea izan dezan neurriak hartuz.
- Oheratutako eta oheratu gabeko pazienteak/bezeroak garbitu eta txukuntzeko beharrezkoak diren baliabide materialak prestatzea (izarak, pazientearen jantziak...).
- Ospitaleko infekzioen isolamendu eta prebentziorako teknikak burutzea, behar bezala jantziz horretarako.
- Libre dauden oheen izarak aldatzea.
- Erdi-mailako dependentzia fisikoa edo dependentzia txikia duten pazienteak dituzten oheen izarak aldatzea, ahal bada hauen parte-hartzea eskatuz.
- Dependentzia fisiko handia duten pazienteei eta/edo unitate berezietakoei jantziak aldatzerakoan edo garbitzerakoan erizaintzako langileei laguntzea.
- Higiene-teknikak eta presioagatiko ultzerak saihesteko teknikak prestatu eta aplikatzea pazienteei/bezeroei.
- Pazientei/bezeroei bainu partziala nahiz bainu osoa emateko edo ilea, aho eta hortzak garbitzeko teknikak burutzea.
- Paziente-unitateak txukuntzea eta zerbitzu eta unitateetako garbiketetan parte hartzea.

7. Gaixoen/bezeroen tenperatura hartzean eta irazkinak biltzea eta bidezko erregistroak ordenaz eta zehaztasunez egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Arteria-presioa, tenperatura, bihotz-maiztasuna eta arnas maiztasuna hartu eta/edo jasotzeko materiala prestatzea.
- Teknika txukun eta zorrotasunez burutzea, ezarritako protokoloen arabera.
- Dokumentu egokietan datuak idaztea, arduradunari gertatu den gorabehera ororen berri emanez.

8. Tratu zuzena izanez, unitate eta egoera desberdinetan dauden pazienteei erizaintzaren oinarriko teknikak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pazienteak mobilizatzea, jasotako oharren arabera ezarrera anatomiko desberdinetan jarritz.
- Pazienteak ohetik besaulkira eta/edo gurgil-aulkira aldatzea (eta alderantziz), ezarritako teknika aplikatuz.
- Altxatu, ohe ertzera hurbildu, albokako etzaneran kokatu edo antzeko ezarrera anatomikoetan jartzeko ekintzak egitea, aurrez pazienteari, berau mobilizatu eta lekualdatzeko, horren berri emanez.
- Bero eta/edo hotzen aplikazio lokalak egitea, baliabide materialak eskura izanez eta aplikazio horretarako pazientearen alderdi anatomikoak behar bezala prestatuz.
- Tratamendu-aginduak interpretatzea, ahoz, ondestetik nahiz bide topikotik medikamentuak eta/edo sendagaiak administratzeko beharrezko materiala hautatuz eta, egoki irudituz gero, dosia agindutakoaren arabera egokitzeko beharrezko kalkuluak eginez.
- Pazientei/bezeroei enemak jartzea.
- Zunda nasogastrikoa duten pazienteak elikatzea, elikadura-teknika honetarako beharrezkoak diren baliabide materialak prestatuz eta kenduz.
- Hala badagokio, beren kabuz egin ezin dutenean, pazientei/bezeroei janariak irensten laguntzea.

9. Zerbitzu eta/edo kontsultategi mediko batean administrazioaren kudeaketako eta biltegiaren kontrolerako teknikak burutzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Biltegia (unitatekoa edo kontsultakoa) zorrotasunez antolatzea, berau eraginkorra izan dadin beharko diren eskaera-aginduak eginez, ezarritakoaren arabera.
- Osasungintzaren esparruko interbentzioei buruzko aurrekontuei dagozkien merkataritza-dokumentuak betetzea, legezko eskaerak betez.
- Osasungintzaren esparruko interbentzioei buruzko fakturei dagozkien merkataritza-dokumentuak betetzea, argibideei jarraituz.
- Kontsultategiko artxiboaren antolamenduan parte hartzea eta, eguneroko kontsultetarako, dagokion iturritik dokumentuak lortzeko eskaerak egitea.

c) Edukiak

Ikastetxeak “lan-egoeretan” kokatutako jarduera gisa finkatuko ditu edukiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako *Lantokiko prestakuntza* lanbide-modulua diseinatzeko curriculum-esparruaren arabera.

3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziazioa eta denboralizazioa

3.3.1. Iraupenak

Lanbide-modulua	Oinarrizko iraupena	Iraupen finkoa
1. Administrazio-eragiketak eta osasungintzako dokumentazioa	60 ordu	80 ordu
2. Erizaintzako oinarrizko teknikak	309 ordu	370 ordu
3. Ospitaleko higiena eta materialaren garbiketa	175 ordu	210 ordu
4. Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa	80 ordu	90 ordu
5. Laguntza odontologiko-estomatologikoko teknikak	70 ordu	90 ordu
6. Lan-taldeko harremanak	60 ordu	60 ordu
7. Lan-prestakuntza eta -orientabidea	60 ordu	60 ordu
8. Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	40 ordu	40 ordu
9. Lantokiko prestakuntza	336 ordu	400 ordu
GUZTIRA	1.190 ordu	1.400 ordu

1. Ikastetxe bakoitzak curriculum-proiektua bere gizarte- eta ekonomia-ingurunera eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, ikastetxeek beren esku izango dute guztizko ordutegiaren %15 –kasu honetan 210 ordu– eta ordu-kopuru hau lanbide-modulu desberdinetan banatu ahal izango dute, baldin eta irakaskuntza desberdinak eskaintza oso baten parte badira.

Horrenbestez, modulu bakoitzerako ezarritako oinarrizko iraupena errespetatu egin beharko da eta aurrerago azalduko diren irizpideen arabera gehitu ahal izango da.

2. Irakaskuntzak eskaintza partzial bateko parte badira, iraupen finkoa ezarri da modulu bakoitzerako eta ezin izango da aldatu.
3. Moduluen behin betiko iraupenek, hau da, ikastetxeak berak esleitu behar duen denbora banatu ondoren, heziketa-zikloak irauten dituen 1.400 orduak osatu beharko dituzte guztira.
4. Ikastetxeetako curriculum-proiektu desberdinetan oreka egokia gordetzeko asmoz, eskaintza osoko modalitatea jarraitzen duten irakaskuntzek ondoko zehaztapena errespetatu beharko dute: lanbide-moduluek ezin izango dute oinarrizko iraupena 64 ordu baino gehiagotan gehitu, *Erizaintzako oinarrizko teknikak* eta *Ospitaleko higiena eta materialen garbiketa* moduluek izan ezik, hauek, bidezko hartzen bada, 96 ordutan gehitu ahal izango dira-eta.
5. Ikastetxean bertan garatu beharreko *Lantokiko prestakuntza* lanbide-moduluko fase desberdinen iraupenek ez dute ikastetxeak modulu honetarako ezartzen duen behin betiko iraupenaren %10 gainditu behar.

3.3.2. Sekuentziazioa

Heziketa-zikloaren sekuentziazioan:

1. Eskaintza osoan:

- *Lantokiko prestakuntza* modulua iraupenaren %65 gaitasun-ataleko loturiko modulu guztien irakaskuntzak amaitu ondoren eman beharko da.

2. Eskaintza partzialean:

- *Lantokiko prestakuntza* modulua heziketa-zikloa osatzen duten gainerako moduluak egiaztatu direnean (ondorio horretarako finkatutako bide desberdinen bidez) soilik eman beharko da.

4. Irakasleak

4.1. “Erizaintza laguntza” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakasleen espezialitateak

a) Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan “Osasungintza- eta laguntza-prozedurak” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Erizaintzako oinarriko teknikak
- Ospitaleko higiena eta materialen garbiketa
- Laguntza odontologiko-estomatologikoko teknikak

b) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Osasungintza-prozesuak” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Administrazio-eragiketak eta osasungintzako dokumentazioa
- Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa

c) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Lan-taldeko harremanak
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.

d) Heziketa-ziklo bereko beste lanbide-moduluren bat irakasten duten a) eta b) ataletan adierazitako espezialitatea duten irakasleek ondoko moduluak ere irakats dezakete:

- Lantokiko prestakuntza.

4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko

4.2.1. "Osasungintza-prozesuak" espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Erizaintzan diplomatua.

4.2.2. “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Enpresa-zientzietan diplomatua.
- Lan-harremanetan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.
- Kudeaketa eta administrazio publikoan diplomatua.

5. Irakaskuntza hauek emateko gutxieneko baldintzak

5.1. Espazioak

Apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuko 19. artikulua araberak, “Erizaintzaren laguntza” erdi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ondoren adierazitako gutxieneko espazioak eskatzen ditu dekretu honek definitzen dituen irakaskuntzak emateko.

Prestakuntza-azalera	Azalera 20 ikasle (m ²)	Erabilera-maila (%)
Erizaintzako lantegia.....	120	70
Gela balioanitza.....	40	30

“Erabilera-mailak” ikasle-talde batek oinarritzko irakaskuntzak irakasteko espazioa zenbat orduz okupatzea aurreikusten den adierazten du; alabaina irakaskuntza hauen guztizko iraupenarekiko ehunekoetan adierazten da. Horrenbestez, ikastetxeek curriculumaren guztizkoa ezartzeko definitzen dutenerako orientagarria da.

“Erabilera-mailak” onartutako marjinan, heziketa-ziklo bereko edo beste ziklo batzuetako edo beste hezkuntza-etapa batzuetako beste ikasle-talde batzuek okupatu ahal izango dituzte ezarritako prestakuntza-espazioak.

Dena dela, prestakuntza-espazioei lotutako ikaskuntza-jarduerak (erabilera-mailak adierazitako okupazioarekin) antzeko beste prestakuntza-jarduera batzuetarako erabilitako azaleretan ere burutu ahal izango dira.

Identifikatutako prestakuntza-espazio desberdinak ez dira zertan itxitura bidez bereizi behar.

6. Konbalidazioak eta korrespondentzia

6.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak

- Erizaintzako oinarritzko teknikak.
- Laguntza odontologiko-estomatologikoko teknikak.
- Ospitaleko higiena eta materialen garbiketa.
- Osasunaren sustapena eta pazientearentzako laguntza psikologikoa.

6.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak

- Administrazio-eragiketak eta osasungintzako dokumentazioa.
- Erizaintzako oinarrizko teknikak.
- Laguntza odontologiko-estomatologikoko teknikak.
- Ospitaleko higiena eta materialen garbiketa.
- Lantokiko prestakuntza.
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.